

NEKANE TXAPARTEGI NIEVE

***“Borroka egin dezakedan
leku oro da nire herria”***

32-39. orriak

#2.778 | 2022 / 05 / 15 | 4,00 €



**Atomoak badu
zinemaldia**

12 | URANIUM
FILM FESTIVAL



**“Eskuetako
sentimendua larruak
ematen dio pilotari”**

16 | MARTINA URSUEGI-HUGUENARD



**Azken hitzunaren
arrastoan**

26 | IYÁMANA

TXORI URDINAK

Espetxearen erretratu bat
Santi Cobos presoaren ahotik

Liburua eskuratzeko:
azoka.argia.eus
943 37 15 45

Txori urdinak liburuaren aurkezpena eta solasaldia

**Espetxe sistema eta zigorraren kultura:
kritikak... eta alternatibak?**

Maiatzak 20 · 19:00 · Ortzaize, Menta liburudenda

Zigor Olabarria egilea eta **Filipe Bidarte** euskal preso politiko ohiarekin

Maiatzak 26 · 19:00 · Baiona, Epaiska Elkarte

Zigor Olabarria egilea eta **Lorentxa Beyre** euskal preso politiko ohiarekin

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO**

Iritziak

- 21 | ASIER BLAS
- 22 | ANE ABLANEDO
- 23 | NEREA IBARZABAL
- 23 | CASTILLO SUÁREZ
- 24 | HIRUKI LARROXA

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 48 | ARGI-KONTRA: AINARA SÁNCHEZ
- 58 | BERANDUEGI

 SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

26 | **AZKEN YÁMANA.**

Aurtengo otsailean hil da yámana hizkuntza hitz egiten zuen azken pertsona. Nola iragan zen XIX. mendean 3.000 kidek osatzen zuen komunitatea 150 pertsonatara murriztera? Joaquim M. Pujalsek azaldu digu estigma, gaixotasunak eta kolonialismoak zeharkatutako historia.



ALFONS RODRIGUEZ

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Rio de Janeirotik dator Uranioaren Zinemaldia

Pello Zubiria

16 | PERTSONAIA | MARTINA URSUEGI

“Memento tzarrak pasatu ditut baina erreusitu dut nire bizia”

Miel A. Elustondo

32 | POLITIKA | NEKANE TXAPARTEGI

“Ni ez naiz gordeko ezta isilduko ere”

Estitxu Eizagirre eta Zigor Olabarria

44 | KULTURA | PUNK ARRASTOAK II

Gazte basatiak, absurdoa, tiroak, iraultza

Iñigo Basaguren-Duarte



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria
Onintza Irureta

Erredakzioa
Amaia Lekuenerri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirgoien, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administrazioa
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako erprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.




Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

Errepikatu ez dadin

1966. 13 urteko Lontxo Zubeldiaren koadernoan. Euskaraz solastatzeagatik jaso zuen hamaika zigorretakoa: "Eskolan ez da baskoz hitz egin behar" mila aldiz idatzi behar. Argazkia zabaldu duen Kike Amonarrizen hitzetan, hizkuntzaren aurkako jazarpenaren eta gaztelaniaren inposaketa sistematikoaren isla da; egungo egoera soziolinguistikoa ez baita modu naturalean gertatu. 56 urte pasata ere, koadernoak ez du gaurkotasunik galdu; adibidez, lan publikoetarako euskara baino alemana edo frantsesa gehiago baloratzea erabaki duten garaiotan. Euskaraz bizitzeko eskubidea ez dago bermatuta Euskal Herrian, ezta euskara hizkuntza ofizialtzat aitortuta duten lurraldeetan ere. Lurraldearen gehiengoan euskaraz bizitzea oraindik orain erabaki bat da. Erabaki politikoa. Horregatik ez genituzke gaurko eta iraganeko injustiziak ahaztu behar, etorkizuna bestelakoa izatea nahi badugu.

DANI BLANCO AXIER LOPEZ



Bilboko hilketen aurrean “isiltasun konplizea” salatu du LGTB komunitateak

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Bilbon, ligatzeko aplikazio bidez gizon homosexualekin hitzordua egin eta ondoren hil egin dituen erasotzaileak alarmaz gain haserrea piztu du LGTB+ kolektiboan, hainbat hedabidek aferari eman dioten trataeragatik, hildakoak berriz biktimizatzeagatik, egoeraren larritasunari eman zaion erantzun apalagatik, instituzioen isiltasunagatik...

Iazko irailetik urrirako tartean, guxtienez lau gizon hil zituen erasotzaileak Bilboko Alde Zaharrean, ligatzeko aplikazioen bidez biktimen etxean geratu ostean. Beste lau heriotza ere ikertzen ari da Ertzaintza, sekretupean. Hasieran naturalizat hartu zituzten heriotzak, baina biktimetako baten anaiak altxatu zuen erbia, hilda zegoen anaiaren kontu korrontetik norbait dirua ateratzen ari zela konturatu zenean. Autopsia egin eta hildakoari estasi likidoa eman ziotela aurkitu zuten orduan.

Ertzaintzak identifikatuta zuen susmagarriak bere burua komisaldegian entregatu zuen maiatzaren 5ean; horren ostean, atxilotu egin zuten. Gizonak adierazi du ez duela hilketekin zerikusirik; ikerketan laguntzeko prest dagoela gehitu du.

“ERANTZUN EZA HOMOFOBIA DA”

Aferak kritika ugari jaso ditu, dela zaurgarria den kolektiboko jendea hiltzen ari diren heinean instituzioetatik salaketa garbia espero zuelako hainbatek, dela gizartean oihartzun eta protesta irmoagoa eskatu duelako askok, dela hedabide batzuek heriotzen eta biktimen inguruan informazioa emateko izan duten modua biktimak berriz ere biktimizatzea ekarri duela iruditu zaiolako hainbati.

Hedabide batzuek heriotzen eta biktimen inguruan informazioa emateko izan duten modua biktimak berriz ere biktimizatzea ekarri duela iruditu zaiho hainbati

Hala laburbildu du sare sozialetan Eneko Ander Romero ikerlariak: “Gure bizitzek ez dute baliorik. Ez dugu elkar-

tasuna merezi. Guk geuk bilatu dugu aplikazio horiek erabiltzeagatik, gure ‘bizitza ereduagatik’. Kendu ‘gay’ eta sartu beste edozein hitz; instituzioak, alderdiak eta mundu guztia mezuak bidaltzen egongo zen! Ah, baina maritxuekin... Oraindik ere ‘besteak’ gara, lizunak, moral gabekoak, zikinak, perbertituak, promiskuoak! Nola atrebitzen gara txortan egitera! Honek bigarren mailako herritarrek egiten omen gaitu. Gure desioa bizitzeagatik ez dugu elkartasuna merezi, ezta akabatzen gaituztenean ere. Argi esango dut, ez dakit eraiketa hauek eraso homofoboak diren ala ez. Erantzun eza, bestalde, hori bai da homofobia. Benetan barneratuta dagoen homofobia”.

KALEAK OKUPATZERA DEITU DUTE

Egoeraren larritasuna azpimarratu du E28 Koordinadorak, eta “instituzioen isiltasun konplizea” kritikatu du. Horrez gain, “sistema polizial eta judizialek bigarren mailako subjektu gisa tratatzen gaituztela seinalatzen dugu, gure gorputzei jasaten ditugun gaitzen errua leporatuz, ‘herritar zintzoen’ arreta merezi ez dugulakoan”. Arreta eta aitortza ez horren ondorio lirateke “eraiketa jarrai” horiek berandu identifikatzea, Koordinadoraren ustez. “Azken hilabeteetan pairatzen ari garen eraso LGTBfoboengatik, maiatzaren 17an, LGTBfobiaren aurkako egunean, mobilizatzearen beharra ikusten dugu, inoiz baino gehiago”.

Ildo berean “kaleak okupatzen jarraitza” animatu du jendea LGTB+ Euskal Behatokiak, “LGTBI+ pertsonen aurkako indarkeria horren kontrako protestekin eta mobilizazioekin” segitzera. Azken urteetako eraso eta gorroto-delituarekin kezkatuta agertu da Behatokia, eta prebentzio-politika eraginkorrek eskatu dizkie instituzioei, baita LGTB+ euskal lege integral bat ere. ●



HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Literatura femeninoa?



ARITZ GALARRAGA

Gehigarri kulturelek batzuetan betetzen dutela beren zeregina, aizue: halako batean ehizatutako pieza baten ondorioz iritsi naiz Siri Hustvedt idazlearen azkena, *Madres, padres y demás*, irakurtzera. Jaso dituen laudorio hiperbolikoak alde batera utzita –“XXI. mendeko Virginia Woolf”–, erantzun benetan argigarriak ematen dituelako. Adibidez hau, literatura femeninoa existitzen ote den galdetuta: “Existitzen bada, idazten duenaren gorputzetik bananduta dago. Zentzu horretan, esan daiteke Henry James idazle femenino bat dela eta Gertrude Stein idazle maskulino bat”. Interesgarriago iruditzen zaio, ordea, mugak ezabatzea, “guztiok errotuta dauzkagun kategoriak leherraraztea, humanoa eta naturala, maskulinoa eta femeninoa, zerua eta infernua. Emily Brönte egiten duen gisan *Gailur ekaiztsuak* nobelan, lan sakonki filosofiko bat, edo Virginia Woolfek, *Farorantz* eleberrian, inoizko literatura maistra-lan handienetako bat”.

Liburuan gehixeago garatzen ditu kontu horiek, adibidez “Fantasmas mentores” izeneko testuan: “Henry James murgildu izan zen femenino deitu izan dugun horretan, eta Gertrude Stein maskulinoa dela imajinatzen dugunean”. Suposatzen da “gizonezkoak direla goranahi literario, akademiko, zientifikoa helburu duen borroka edipiko batean nahasten direnak”; eta emakumezkoak “borrokalekutik kanpo geratzen dira, edo sukaldetik atera gabe”. Baina, benetan, “femeninoa dena eta maskulinoa dena nahastuta daude, ezpuruak dira, nahaste-borraste bat”. Ez da harritzekoa, hartara, “jendeak egiazki ez gauza bat ez bestea den pertsona bat bezala bizi nahi izatea”. “Fronteras abiertas” izenekoan, aldiz, zera dio: “Sexu diferentziak”, eta sexu itzuli diote, baina agian genero esan nahiko zuen, “funtsezkoa izaten du jarraitzen munduak gaur egun nola funtzionatzen duen ulertzeko”. Eta hori horrela izango delakoan nago, helburu beharko lukeen generoen deuseztatzea gauzatu arte. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

ZELATATUAK!?!



Heriotza

20 urteko migratzaile baten gorpua aurkitu dute Bilboko Zabalgarbiko errauste plantan. Egun bat geroago, gizon etxegabe bat aurkitu dute hilda hiriburuan. Bilboko Casilda Iturrizar parkeko banku batean lotan ari zela zendu da.

Gerra zikina

Gerra zikinaren 23 biktimak terrorismoaren biktima aitortza eskatu dute auzitegian, baina kostu judizialak ordainarazi dizkiete. Egiairi Zor fundazioaren arabera, guztira 106.000 euro ordaindu dituzte GAL eta Batallon Vasco Españolen 23 biktimen familiek.

Oinarrizko errenta

Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errentaren aldeko herri ekinaldi legegileak 22.075 sinadura lortu zituen proposamena Eusko Legebiltzarrera eramateko. EAJ, PSE, PP eta Vox-en botoekin atzera bota dute proposamena eztabaidatzea.

EKONOMIA

Arazoa konpontzeko asmorik gabeko Lan Eskaintza Publikoak



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Eusko Jaurlaritzak iragarri ditu irakaskuntzako eta osakidetzako Lan Eskaintza Publikoaren azterketa berriak. Txalotzeko albistea behar luke, baina ezin horrela ulertu. Urrunetik datorren lan gatazka iraunkortuko du, eta enpleguan dauden arazoak konpontzeko beharrezkoa den negoziazioaren bidea berreskuratzea are zailago egingo du.

Europar beste inon ez bezalako behin behinekotasun mailak daude EAEko zerbitzu eta administrazio publikoetan, eta Jaurlaritzak badaki ez dagoela hori konpontzerik noiz behinka oposaketak antolatuz. Badaki zerbitzu publikoetako enpleguaren egoeraz hitz egingo badugu, egonkortasunaz ez ezik, kopuruez, lan zamaz, lanaren antolaketaz eta langileen belaunaldi aldatetaz hitz egin behar duela. Eta auzia bere osotasunean hartuko badugu, Jaurlaritzak onartu behar du behartuta dagoela aurrekontu publikoaren kontura azpikontraten bidez egoera guztiz prekarioan dauden langile eta zerbitzuek hitz egitera.

Lan Eskaintza Publikoak behar dira zalantzarik ez du inork. Baina izan daitezela arazoa konpontzeko helburuaren neurrikoak, eta zerbitzu publikoak sendotzeko eta zabaltzeko erabaki politikoaren ondorioz. Eta izan daitezela adostuak, hauek, berriro ere aldebakarrez erabaki dituelako. Patronal publikoak enplegua horrela kudeatzen badu, zer exijituko dio Jaurlaritzak patronal pribatuari? Borrokan jarraitzen dute adineko egoitzetako, etxez etxeko zerbitzuetako edota egoitza publikoetan garbiketara lan egiten duten langileek, emakumeak gehien gehienak. Eta Jaurlaritzak, beste instituzioekin batera, isilik. Horrela ez dago arazoa konpontzerik. ●

ANALISIA



Le Penen itzalaren zabalpenaz

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Ttipi-ttipia nintzanean Le Penek bi boto biltzen zituen ene sorterrian. Hauteskunde oro bi boto, eta bistan da, ehun bat biztanleko -75 bat hautesle- herria izanik, bagenekien zein etxetakoak ziren. Hauteskundeak jin hauteskundeak joan, 2002an ere bi zituen, lehen aldizko eskuin muturra Frantziako lehendakariatzako bigarren itzulian kokatu zenean. Aurten, 26 boto bildu ditu eta zenbaki hori ezin ulertuan nabili, hausnarrean. Ez dago zehaztu beharrik eskuin muturraren lur emankorrek -immigrazioa, segurtasun eza, delinkuentzia- ez dituela ezagutzen Baxearreko herria ttipiak. Le Pen bere alde baliatzen duen ezinegon sozial eta ekonomikoak ere ez du sekulako saltoa egin mendi arte horretan. Lehen ez bezala, Frantziatik etorritako jende berria bada eta agian haiekin ekarri dute boto lepenista. Hori diot batek axolarik gabe auzoari kontatu diolako Le Pen bozkatzen duela, inolako zuhurtasunik gabe anekdota bat ere gehituz: datorren herriko auzapezak auzo duten Alemaniatik skinhead nazi batzuk ekarraziti zituela futbol-zelaian instalaturiko ijito batzuk bortizki kanporatzeko. Baina 26 horietan jatorriz herrikoak dira gehienak. Ez dut uste guztiek boto arrazistaren hautua egin dutenik -eta tronpatzen banaiz, gaizki gara-. Hori diot, kalkulu elektoralista bati segi aldi honetan Le Pen ez delako batere mezu xenofoboan zentratu.

55.879 boto ukan ditu Ipar Euskal Herriko Le Penek bigarren itzulian -2002an baino 37.301 gehiago-. Parezan, erantzun antifaxistak indarra galdu du, 2002ko eta 2022ko bi itzulien artean Baionan bere aurka egindako manifestazioak konparatuz argi gelditzen da. Erantzun antifaxista berraktibatzeke behar gorria dago -demagun, ene herrira etorritako horrek bere anekdota kontatzeko beldurra edota lotsa ukan behar lukeelako-. Aktibatu, behar den aldi oro. Baina nago, antifaxismoaren barne sartu behar dugula parekoarekin solastatzeko ariketa, pedagogia antifaxista egiteko denbora. Le Penek berak isiltzen duena eta mainstream komunikabideek gordetzen digutena azaleratzeko beharra ere badago: jende horrek jakin behar du eskuin muturraren "aldaketaren" alde bozkatuz -Le Penen mezu nagusia- aldaketa arrazista bat duela hautatzen eta nahi edo ez faxista bati diola botoa ematen. Ariketa ez da erraza, baina pazientzia handiz ondoko bost urteetan egin beharrezkoa dugu. ●

70 milioi

euro altxor publikotik irentsi ondoren, salgai da Los Arcoseko zirkuitua. Dirua etengabe galtzen duen azpiegitura gainera kendu nahi du behingoz Nafarroako Gobernuak. Balizko erosleek uztailaren 1era arte dute erosketarako aukera.

1.000 milioi

pertsonatik gora kiskaltzen ari dira Indian eta Pakistanen. Lurraren tenperatura 62 gradura eta airearena 50era iritsi da, astebetetz baino gehiago luzatzen ari den bero-olatuan.

18

basauriar eta arrigorriagar etxe barik eta kalean geratzeko arriskuan dira. Batu Elkarlaguntza Sarearen asanbladetara joan dira azken hilabeteotan, etxebizitzarekin lotutako arazoengatik.

“Ipar Euskal Herrian goi mailako ikasketak euskaraz ere eskaintzea eskatzen dugu”

XUTI GAZTE!

Aldarrikapen nagusi horrekin, sinadura bilketa abiatu du eta gutuna idatzi die hainbat instituziori gazte mugimenduak.

2022-05-03



“NAFARROAKO HEZKUNTZA-EREDUAK MILAKA HAURRI UKATZEN DIO EUSKARA EZAGUTZEKO ESKUBIDEA”

EUSKALGINTZAREN KONTSEILUA

PAI ingelesa ikasteko programa eredu bihurtzeko Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakia oso larritzat jo du Kontseiluak.

2022-05-04

“Errusiako atean NATOren zaunkek Putinen haserrea probokatu ez dakit, baina erraztu agian bai egin dute”

FRANCISCO AITA SANTUA



TEKNOLOGIA

Beldurra, aldaketak eta zientzia



DIANA FRANCO

XX. mende hasieran, Erresuma Batuan elektrifikazioaren erresistentzia handia izan zen. Frantzia eta Espainian elektrifikazioa 1920an jada abian zen bitartean, Ingalaterran 1940. urterarte ez zen bideratzen hasi. Arrazoiak: gas konpainiek, merkaturak ez galtzeko, elektrifikazioarekiko beldurra sustatu zuten herriararen artean.

Aldaketa teknologikoak gizarteratzeko historian egin den beldurraren erabilerari heldu nahi diot orain. Beldurra, ezer ez bezala, gizakiak mobilizatzeko tresna bat da, gure ongizatea ziurtatzeko dugun mekanismoa den heinean. Historikoki, beldurra sartu digute, edota gure beldurrak ezjakintasunaren parean jarri dira aldaketak sustatzeko, aldaketa berez onuragarritzat ulertzen ez zen kasuetan. Alegia, beldurra berdinean erabili dute aldaketak sustatu nahi dituztenek eta aldaketak eragotzi nahi dituztenek. Halakoez, zientzia ulertu da argia emateko tresna gisa. Zoritxarrez, zientzia egitea ez dago denon esku, eta jorratu dituen bideak oso lotuta daude lortutako finantzazioari.

Eremu digitalean bizi dugun garaiak Ingalaterrako elektrifikazioaren kasua ekartzen dit burura. Alde batetik ditugu segurtasunaren beldurra sustatzen dutenak, defendatzen duten eredu azpiegituren kontzientzia izanik: "Gure azpiegiturak seguruak dira, leku bakar batean daude, gotorleku bat, eta bertara inor ezin da sartu". Beste aldetik, azpiegituren banaketa bilatzen dutenak daude, eta kasu honetan sustatzen den beldurra da pribatutasun eza eta kontrola: "Azpiegiturak kontzentratzen dituzten korporazio handien negozio ereduak zure datuetan oinarritzen da, eta zure bizitzan eragin dezakete euren bezeroen onurarako". Herritarrok bi aldeko mezuak ditugu. Zer egin? Korporazio handien hodeien zerbitzuekin jarraitu ala sare banatuak proposatzen dituztenen ideia berriak aztertu? Non dago zientzia egun? Zelan azterten ari da gai hau? Natura ez bezala, gizakion teknologia batzuk itxiak dira, ez dira auditagarriak, eta badirudi zientziak hor ezin duela argirik eman. Ezjakintasun eredu berri batean bizi beharko al dugu? ●

NAZIOARTEA



PETER MORRISON - AP

Mugarri berria Ipar Irlandan

AXIER LOPEZ

Sinn Féin-ek (SF) Ipar Irlandako hauteskundeak irabazi ditu, historian mugarria ezarri. Alderdiaren iparraldeko buru Michelle O'Neill-ek eskura dauka lehen ministro izatea, Sei Konderrietako estatu artifizialaren 101 urteko historian politikari nazionalista batek inoiz lortu ez duena. Garaipen honek berretsi du SF-ren asmo nagusia: mugaren bi aldeetan lehen indar bilakatu eta gobernuak eskuratzea. Hori hiru urte barru lor lezake, Irlandako Errepublikako hauteskundeak izango baitira.

SF-k botoen %29 lortu du, 2017ko bozetan baino 1,1 gehiago. Alderdi unionista nagusiak, DUPek, orain arte indarririk bozkatuena izan denak ageriko jaitsiera izan du: %21,3 (-6,7). Hirugarren postua zentro liberaleko Aliantza alderdiak eskuratu du, unionista-nazionalista dikotomiatik kanpo kokatutako indarrak %13,5 lortu du (+4,5).

DUP "aurkakoen" alderdi bilakatu da. LGTBI kolektiboen eskubideen aurkakoa, abortu eskubidearen aurkakoa, migratzaileak hartzearen aurkakoa, erreferendumaren aurkakoa, eta orain Ostiral Santuko Akordioek agintzen dutenaren aurkakoa ere bai. DUPek botere partekatuko gobernuari boikot egiteko mehatxu egin du. DUPen baldintza da gobernu britainiarrak eta Europar Batasunak aurrerapen handiak lortzea Brexit-aren osteko merkataritza-elkarriketetan. Izan ere, unionistek uste dute muga bat ezarriko dutela Irlandako iparraldearen neurri handi batean EBko

eremu komunaren barruan egongo litzatekeena- eta "apurtezina" zaien Erresuma Batuen artean.

SF-k kanpaina Irlandaren batasunaren gaia alde batera utzi nahi izan du eta gai sozioekonomikoetan jarri du indarra, osasun, hezkuntza edo energia-fakturaren igoera kasu. Hala ere, hauteskundeetako emaitzak baloratzeke agerraldian, Mary Lou McDonald presidentea adierazi du SF-k uhartea bateratzearen alde lan egingo duela, baina "modu planifikatu, ordenatu, demokratiko eta erabat bakes-tsuan" egin behar dela. Bere asmoen arabera, bi erreferendumak (bata iparraldean eta bestea hegoaldean) "bost urteko epean" egin litezke.

Brandon Lewis Irlandako iparraldeko ministro britainiarrak DUP-i eskatu dio ministroorde nagusia izateko hautagaia aurkez dezan, "Ipar Irlandako Gobernu autonomoaren instituzionaltasuna berreskuratzeko". Irlandaren batasunari buruzko erreferenduma baztertu egin du, "unionisten botoen baturak handiago izaten jarraitzen duelako". DUP, UUP eta TUV alderdien artean botoen % 40,2 lortu dute.

Erresuma Batuen menpeko herrietako indar subiranistek aurrerapausoa eman dute hauteskundeetan. Sinn Féinen garaipen historikoak gain, Eskozian SNPk inoizko emaitzarik onenak lortu ditu tokiko hauteskundeetan. Galesen, Plaid Cymru hirugarren indarra da zinegotzitan (202), laboristen (526) eta independenteen (316) atzetik. ●

Adin txikikoen aurkako indarkeria kirolean

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA



Kirolean adin txikikoek jasaten dituzten indarkeriak agertu ditu Europako ikerketak

Kataluniako Viceko Unibertsitateko kirol karreran irakasle den Montse Martí-ren ikerketako emaitzen arabera, elkarrizketatuek kirolean kiroletik kanpo baino indarkeria gutxiago jasan dute, indarkeria psikologikoa da kirolari gehienek jasaten dutena, eta kirol maila igo ahala indarkeria gehiago jasaten da: labur.eus/hangw



Kirolean haur eta nerabeek jasaten dituzten indarkerien rankingak

Montse Martí eta beste bost herrialdetan egiten ari diren ikerketan aztertu dituzten bost indarkerietan egindako galdera zehatzak eta Espainiako Estatuko elkarrizketatuek eman dituzten erantzunak: labur.eus/6UpkN



Kirolean indarkeria gehiago jasotzen dute mutilek neskek baino

Datu batek oso sorpresan harrapatu ditu ikerketaren egileak: kirolean, mota guztietako indarkeriak gehiago jasaten dituzte mutilek neskek baino. "Sexu erasoak jasaten dituztenak mutilak gehiago izatea ez genuen espero, kopuru parekatuak espero genituen": labur.eus/a19Zm



"Kirol munduko sexu erasotzaileak biktima, familia eta kluba denboraz prestatzen ditu"

Zenbakiez harago, erasotzailearen ekiteko modua ere azaldu du Montse Martík: biktima prestatzen duela denbora oso luzean, familia ere bai, kluba ere bai eta isolatu egiten duela, erasoak isildu dezan: labur.eus/8uhV5

Mutualia

Osakidetza eta Mutualia enpresa pribatuak sinatu duten lankidetzahitzarmena salatu du LAB sindikatuak. Jaurlaritzak Mutualiari herritarren datu medikuak "oparitu" dizkiola dio sindikatuak. "Oso larria eta arriskutsua iruditzen zaigu".

Abortua

Donostiako Askabide Klinikara prozesioa antolatu zuen berrirori mugimendu antiabortistak. Mugimendu feministak deituta, ordea, ehunka lagunek Askabide inguruak babestu eta prozesio antiabortista ez zen atera ere egin.

Kote Cabezudo

Modeloei sexu erasoak eta intimitatearen aurkako delituek egiteagatik epaitu duten Donostiako argazkilariari behin-behineko espetxealdia bukatu zaio, baina beste zigor batzuegatik kartzelan jarraituko du, zortzi urtetik gora.

RIO DE JANEIROTIK DATOR URANIOAREN ZINEMALDIA MAIATZEAN, ATOMOAZ ESTALITAKO EGIAK ERAKUSTERA

Gerra atomikoa, uranio meatzeek lagatako kalteak, zentral nuklearren hondakinak, klima aldaketari aurre egiteko balio ote dezakeen industria nuklearrak... Horiek eta energia atomikoaren beste hainbat osagai eta ikuspegi jorratzen dituzten filmak erakutsiko dira Uranium Film Festival zinemaldian, Brasilgo Rio de Janeiron, maiatzaren 19tik 29ra; giza-zibilizazioaren arriskurik handienaz dokumentalez bezala fikzioz ari diren filmak.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Garrantzizkoa ote da Rio de Janeiron hamaikagarrenez maiatz honetan burutuko duten Uranioaren Film Zinemaldia? Oso, sinestekotan Berlingen Claus Biegert (Alemania, 1947) kazetari eta militante antinuklear zaharrari -Nuklearrik Gabeko Etorkizunaren Sariak (Nuclear-Free Future Awards) sortu zituenari-.

Alemanian Europako jendeei zinemaldia aurkeztean, apirilean, honela mintzatu da Biegert: "Plazerez egin dut *Uranium Film Festival*-en aurkezpena, bere indartzearen lekuko izan naizelako. Zinemaldi honek lan handia egiten du ahanzturaren kontra. Nuklearraren arazoa ez da bakarrik ez gaituztela horietaz informatzen, hori da kontuaren alde bat; arazoa da gauzok jakiten ditu-

gunean ere berehala ahanzten ditugula. Oso garrantzitsua da nuklearraren aroarentzako amaiera bat aurkitzea. Gizakiok hasi genuen nuklearra eta gu guztioi dagokigu hari ematea bukaera. Gauza da, nola. (...) Horregatik 2010ean topo egin nuenean *Uranium Film Festival*-ekin, pentsatu nuen: 'To, jada eman diagu urrats bat!'. Zinemaldi honi ez zaio gertatzen herri mugimenduei bezala borrokan ari direla aurrera egiteko, ez: hauek jada goia jo dute. Esan nahi dut, lortu dute maila bat, formatu bat, eta orain behar dutena da jendearengana iristea'.

Uranioaren Zinemaldia (portugesez *Urânio em Move[im]ento* deitzen da) 2010ean Brasilgo Rio de Janeiron sortu zuten Norbert G. Suchanek (Alemania, 1963) kazetariak eta Marcia Gomes

de Oliveira (Brasil, 1970) soziologoak. Suchanek ezaguna da Brasilen 1990eko hamarkadatik ingurumenaz, giza eskubideez eta zientziak egindako ikerketakazetaritza lanagatik; liburu, argazki eta filmetan bildu ditu Ipar Irlandatik hasi eta Palestinarainoko gatazketan eta Brasilen oihaneko jendeen artean ikusi eta bizi izandakoak.

Beyond Nuclear International erakunde antinuklearraren gunean Linda Pentz Gunterrek *Ideia bitxi bat arrakasta handi bilakatu da* kronikan kontatu du Norbert Suchanek lehenbizikoz topatu zuenean tipo *pitzatu* samarra iruditu zitzaiola, bere baikortasun kutsagarriarekin: "Aipatu zidan abian jarri behar zuela zinemaldi bat soilik energia nuklearrari eta gerra atomikoari buruzko filmez osatua, munduan zehar



PLUTONIOAREN KUPULA,

'Hilobia' ere deitua, Marshall artxipelagoko Runit uhartean. 12 urtez AEBek leherrarazitako bonba atomikoen hondar irradioaktiboak daude hormigoiz estalia, Ozeano Barearen erdian. Argazkia: Sea Gypsies.

SEA GYPSIES

mugituko zena. (...) Nik pentsatu nuen *Dr. Strangelove* eta *Godzilla* bezalakoak behin eta berriro eman ostean material faltan geratuko zela, zeren eta zenbat film egon zitekeen hortik energia nuklearra bezalako gai elkor eta ezkutukoaz? Nork nahiko zuen joan gerra nuklearrari buruzko pelikula etsigarriak ikustera? Ez zuen asko iraun behar zinemaldi hark, pentsatu nuen. Horregatik ematen du batzuetan hainbeste poza ekibokatu izanak”.

Pasatu zen Rioko lehen zinemaldia 2010ean eta 2011n Fukushima zentralaren istripu larriak erakutsi zien mundu osoko herritarrei atomoaren arrisku larriek hor zirautela, inork horiek aipatu ez arren. Geroztik, 2011n Rio de Janeiron eta Alemanian ere egin ostean, urtero lortu dute bai zinemal-

“Filmak dira nuklearren arriskuak ezagutarazteko bide onena”

Marcia Gomes

dia osatzea eta baita munduan zehar zabaltzea ere: Alemania, India, AEB, Kanada, Jordania, Portugal, Espainia (Almería 2020an), eta abar. Bi aldiz, 2013an eta 2018an, egin dute AEBetan, ikustaldiak eskainiz hainbat hiritan eta bereziki Navajo jendearen lurretan,

Window Rocken –navajoek beren lurretan eta beren larruan nozitu dituzte AEBetako industria nuklearrak uranio bila eta militarrek arma atomikoak probatzeko lehertuz eragindako zauriak–.

2022ko edizioan, maiatzaren 19tik 26ra brasildarrek Rio de Janeiroko Arte Modernoaren Museoaren zinematikan ikusi ahal izango dituzte aurten go zinemaldiko altxorrak. Gainerako mundutarrok, Internetetik eta libre ikusteko aukera edukiko dugu egun horietan. Aurrekoetan bezala, hautatu diren 41 filmen artean genero guztietakoak ikusi ahal dira: dokumental, esperimentuzko, marrazki bizidun, thriller, zientzia-fikzio, komedia, beldurrezko, humorezko... Posible da tartean industria nuklearraren propaganda nabarmena den baten bat ere ikustea,

antolatzaileek ez baitote muzin egiten horrek gaia mahaira ekartzeko balio baldin badie. Programazioan eskaini duten zerrendako batzuk nabarmen-tzea merezi du.

Izarretako bat *Atomic Cover-up* (AEB, 2021) izanen da, izenburua *Ezkutatze atomikoa* edo *Atomoaz estalitakoak* euskaratu diezaiokegun dokumentala, zeinetan Greg Mitchellek erakusten dituen Nagasaki eta Hiroshiman amerikarrek leherrarazitako bonba atomikoen kalteen irudi orain arte ezkutuan gordeak. 1945eko maiatzean, leherketen biharamunean, bi ekipo aritu ziren txikizioak filmatzen, Japoniako albiste kate bateko ekipoa batetik eta AEBetako armadaren eliteko talde bat bestetik, jada ordurako sunsiketaren eta giza-kiengan eragindako erredura eta beste zauri ikaragarrien kolorezko irudiak jaso zituztenak.

“Gizakiok hasi genuen aro nuklearra; guri dagokigu hura bukatzea”

Claus Biegert

Arthur McArtur jeneralak, ordea, irudi haiek *top secret* izendatu eta ezkutarazi zituen eta bahituta egon dira hamarkada luzez. Bitartean, industria nuklearrak bere urrezko aroa bizi izan zuen eta arma atomikoen lasterketak

AEB eta Sobiet Batasunaz gain beste hainbat herrialde gehitu zituen lehiara. *Atomic Cover-up*-ekin Mitchellek lortu du irudi zentsuratu horietako asko jendeari erakustea. 2022ko gerra berrietan bizi dugun arrisku nuklearra gutxieteko tentaldia sendatzeko moduko irudiak.

Sea Gypsies: The plutonium dome (“Itsasoko Ijitoak: Plutonioaren kupula”) izango da ziur arrakasta edukiko duen beste dokumental bat. Belaontzi batean itsasoak zeharkatuz bizi den familia batek bisitatzen ditu Marshall uharteak, Ozeano Barean, AEBetako armadak hidrogenozko bonba atomikoak probatzeko sakrifikatutakoak: hamabi urtean batez beste egunero Hiroshimako bano handiagoko bonba bat adina erradioaktibitate jaso zuten. XXI. mendeko marinel errariok iritsiko dira yankiek uharteetako batean plutonioz



OINARRIAN

Marcia Gomes de Oliveira soziologoak eta Norbet G. Suchanek kazetariak zuten festibala sortu 2010ean.

kutsatutako hondakinak hormigoiz estali zituzten kupula bateraino. Jada Interneten libre ikus daitekeen lekukotasun hunkigarria.

Fukushimako istripuak bertako biztanleen artean eta bereziki etxera itzuli ezin dutenengan utzitako orbanak kontatzen dituzten filmak dira *Atomic Refugee Moms* ("Ama Errefuxiatu Atomikoak"), *Miyako* eta *The Invisible Island* ("Uharte ikusezina") japoniarrak. Frantzia egina da *Peur à fleur de peau* ("Beldurra hezurretaraino sartua"), lotzen dituena Fukushima gaur hondakin erradioaktiboekin bizi duten arazo larria eta Normandian La Hagueko hondakin atomikoen tratatze planta inguruetan bizi dutena.

"Nuklearraren arazoa ez da bakarrik ez gaituztela horietaz informatzen, arazoa ere da gauzok jakiten ditugunean ere berehala ahanzten ditugula"

Claus Biegert

Uranio meatzaritzaz ari da beste film sorta bat. *Bretagne radiieuse*-n ("Bretainia irradiatua") bertako herritarrek kontatzen dituzte aspaldiko meatzeek beren lur eta etxeetan utzitako kutsadurak. *L'Uranium de la*



Zentral nuklearren erregai erabilia birziklatzeko zain Narbonan (Okzitania).

L'URANIUM DE LA COLÈRE



Arlit herriko (Niger) herritar batek erakusten ditu Orano multinazionalak uranio meategia itxitaikoa bere hartan lagatako hondakin kutsatuak.

L'URANIUM DE LA COLÈRE

colère-n ("Uranio madarikatua") Nigerren gaur bertan, nagusiki Frantziako zentral nuklearrak elikatzen duen uranioa erazten duten lurraldeetako bizi ezina kontatzen da. Eta badira hari horretako gehiago Groenlandia, Kanada, Namibia eta abarretako kasuen inguruan filmatuak.

Irakurleak nahiago baldin badu atomoaren distopiarri zinismo pittin batez

erreparatzea, *Stalking Tchernobyl*-en ("Ezkutaketa Txernobylen") dauka mundu osoko frikiak klase guztietako abentura ez legalak praktikatzeko hango paraje post-apokaliptikoan. Aldiz, benetako beldurra maite badu, zinemaldian aurkeztuko diote *World War 4* ("Laugarren Mundu Gerra") zientzifikozko serieari hartutako atal errealistenez osatua. On egin! ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
www.zinkunegioptika.com



LAPIMA Eguzkitako betaurreko bilduma berria

Martina Ursuegi-Huguenard-Huguenard

PILOTAGILE SINADURADUNA



MEMENTO TZARRAK PASATU DITUT BAINA ERREUSITU DUT NIRE BIZIA



Hogeita hamazazpi urtez izana da pilotagile, oraindik orain erretretan sartu den artio. Badiote, eta ez diote dohainik eta alferretan, pilota bat ikusiz batera jakiten ahal dela Martina Ursuegi-Huguenardek egina den. Dakitenek badakite, pilotan izena ezarri beharrik ez du Martinak, larrua josteko puntu fina du sinadura.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Nola hasi zinen pilota josten?

17 urtetan utzi dut eskola, eta sartu naiz etxe batean, haurrez okupatzeko —bazi- ziren hiru haur—, eta etxeaz eta jatekoaz ere okupatua nintzen. Sasoi hartan, etxeko nagusiak makina bat egin zuen, pilota egiteko. Turbomecan aritzen zen lanean, abioien usinan, Tarnosen (Lan- dak) eta Angelun. Bazuen postu handia eta ibiltzen zen eskuin-ekzer, Parisen eta bertzeetan, eta bazuen aski, baina, hala ere, maite zuen gauzak xerkatzea, eta hala egin du pilota egiteko makina hori. Horretarik partitu da ene afera, zeren haurrak handitzean etxe hartan ez zuten ene beharrik, baina nagusiak

galdetu ninduen ea nahi nuen lan egin pilota munduan. Berezia izanen zela lan hura. Eta erran nion baietz: “Entseatuko naiz!”. Pilota mundua ezagutzen nuen, banuen otto bat, aritzen zen pixka bat pilotan, eta segitzen nituen partidak. Baina, bertzenaz, josteko lanak-eta, has- tetik ikasi ditut denak!

Eta pilota egiten hasi zinelarik, gogoan duzu lehenbiziko egun hura?

O, ba! Zeren eta ametsak eta guziak eginak ditut! Amets onak, eta tzarrak, bietarik. Nahi nuen ene lana ongi egin. Gustatzen zitzaidan jostea eta hori dena, baina ez nekien nola egin pilota,

eta gostarik gosta nahi nuen nire lana ongi egin, eta gauaz buruan ari nintzen: “Hola egin behar dut..., hala egin behar dut”. Gauaz etortzen dira gauzak! Eta, hola, nagusiak erakatsi zidan, eta ikasi nuen pilota josten, xixilka. Nagusiak be- rak emazte batekin ikasi zuen, eta niri gordezka erakatsi ninduen josten.

Zergatik ibili behar zuen gordezka?

Nagusia isila zen, ez zuen maite gauza erakastea, “hau eta hori eta hura egiten dut”, ez, isila zen. Lehenbizi, nagusiak erakatsi zidan, eta, gero, ikusiz pilota jostea lortzen nuela, ekarrarazi zuen emazte bat, hura nor zen niri erran



Martina Ursuegi-Huguenard

SENPERE, 1961



Pilotagile artisau, eta artista. Ez alferretan du ezagun berak josi pilotak, bateko puntu eta bertzeko hari. Ez du unibertsitate ikasketarik egin, baina erreusitu du bizia. Arrakasta lortu du, Jean Batitta Elizanbururen harako hura bere moldera egina: “Badut andrea, badut semea, badut alaba ere nik; osasun ona batetik, ontasun aski bertzetik, zer behar dut gehiago nik?”. Halaxe Martinak.

gabe. Baina gauzak jakiten baitira, jakin nuen emazte hura pilotagilea zela Donibane Lohizunen, esku-huskako pilotak egiten zituena. Nire aita aritzen zen baratze garbitzen, eta justuki joaten zen Donibanerat emazte horren etxera. Hola jakin dut nor zen! Eta hark jakin zuen ni nor nintzen ere! Zeren nagusiak ez zuen deus erran nahi inori, baina ez dakit zertako ez, zeren nik atxikitzen nituen sekretu guziak. Hala egin dut ene bizian, etxe hartan haurrez okupatu nintzenean, eta berdin hemen [Eskutik pilota lan-tegian].

Nor zen, bada, pilota josten erakatsi zizun emazte hura?

Kuplea zen, bikotekidea, eta ez zuten haurrik, segidarik ez. Mendiaga ziren, eta jaun-andreak aritzen ziren pilota egiten. Senarrak pilotak muntatzen zituen, eta andreak josten. Bizi guzia pasatu zuten hola, Donibane Lohizunen, baina uste dut Hazparnen ere bazirela Mendiagak. Ez naiz segur. Esku-huskako pilotak egiten zituzten, fama handia zuten. Gu hasi ginen paleta eta joko-garbi pilotak egiten, eta egun batez nire nagusiak proposatu die Mendiaga haiei beren sekretua erostea. Behar da jakin pilota egiten, bada sekretu pittin bat, ez handi-handia, baina badira gauza ttikiak kontatzen ez direnak. Pilota egiteko sekretua bada, eta bakotzak badu berea.

Bakoitzak berea duenez, zuk ere zeurea dukezu... Ez dakit zer kontatzen ahal duzun.

Lehen baziren aintz pilotagile, eta sekretua ez pasatu nahiz, eraman dute zultura! Zenbait jendek, erosi du pilota egiteko sekretua, pagatu du, jendeek ez baitute hola eta hola ematen! Baina hori ez da bakarrik pilota munduko gauza, aintz gauzatan bada hori! Eta domaia da! Norbaiti erakastea, transmisioa, eta, gero, horren gainean gauza berriak ekartzea, handia da. “Ikasi dut horrekin, baina nik ere ekarri dut pitta bat”. Hola eginez, gauzak hobekitzen dira. Baina aintzek ez du berdin pentsatzen, eta ez nehorri pasatu nahiz, atxiki du sekretua. Domaia da!

Sekretuak sekretu, bakoitzak berea. Eta, erraten ahal diren sekretuetan, zein dira pilota ona egiteko baitezpadakoak?

Hasteko, laneko material ona behar duzu, eta, gero, pilota nola muntatzen den ikusi behar da, zein pilota egin behar den. Klase aintz baduzu: paleta, joko-garbi, esku-huska, eta bakoitzak baditu klase gehiago ere: umeak, kimuak, gaztetxoak, gazteak, helduak... Eta pilota denek ere badute beren pisua, eta elementu guzietan! Gomak badu bere pisua, artileak ere bai, larruak ere bai... Bakoitzak badu bere pisua, eta pilota osoak egina badu bere pisua ere. Erdian, egiten duzu nahi duzuna. Nahi baduzu pilota goxo egin, gutiago tiratzen duzu goma, eta nahi baduzu azkarra egin, gehiago tiratzen. Baina materialak egiten du aintz. Ez bada ona, ez du balio. Manatzen duzularik hamar kilo artile, ez dakizu nola helduko den. Batzuetan, ongi, bertzeetan ez. Hara, pilota egiten dugunok erdian gara: materialaren eta jokalarien artean. Erdian gara, eta zaila da, eta, hala ere, behar da erdi hori atxiki!

Probatzen dituzue pilotak?

Ematen ditugu entseatzeko pilotariei, eta haiek erraten dute bata edo bertzea: “A, klaska ez du aski!”, soinua, erran nahi baita. “Murruan ez da ateratzen... Zolan ez da lehertzen...”. Pilota egitea ez da erraz.

Xixila hasi ginen, erran nahi baita, trankil. Hastapenean, erdizka aritzen nintzen etxe hartan lanean, eta, bertze erdizka, pilota josten hasi nintzen. Sei hilabete edo urtea bi lanetan segitu nuen eta, gero, ikusiz pilota onak egiten genituela, eta lana emendatzen zela, utzi dut etxea eta segitu dut pilota egiten. Hastetik maite ukan dut pilota egitea. Eskulana maite dut, aintz.

Maite ukan duzu pilota egitea, erran duzunez. Eta partidak ikustea?

Bai, maite nituen Olaizola-eta horiek denak, izigarriak dira. Eta maite nuen aintz Irujo, gelditu da, obligatua baitzen.

“**Kamera bidez, nagusiak behatzen zuen zenbat denbora ematen nuen pilota josten... Eta, hor, kraskatu dut. Zainak hartu zaizkit eta ‘aski!’**”



Partida ikusten duzularik, pilotarien jokoa ikusten duzu, ala pilota nola korritzen den?

Kar, kar... pilota nola korritzen den, pilotaren bizitasuna, punpa... Entseatzen gara beti berdin ateratzen pilota guziak, baina beti bada hau biziagoa, hura azkaragoa, honek punpa du halako, bertzeak klaska halako... Eta, hala ere, bada jokalariek pilota eskuan hartu eta ukaiten duten sentimendua: "Pilota hau ez dut ongi sentitzen eskuetan!". Sentimendua da! Jokalariek hola erraten dute, sentitu behar dutela pilota! Klaska, punpa... dira lehenbiziko kriterioak, baina, gero, eskuetako sentimendua duzu, eta hori larruak egiten du. Badira larru ezberdinak, goxoak batzuk, gogorrak bertzeak, eta hor da pilotaren diferentzia, sentimendu horretan da dena. Jokalariak behar du pilota sentitu.

Ainitz dakien pilotari zailduaren afera duzu hori.

Ez, ez. Hona heldu zaizkigu haurrak, ateliera ikusterat, eta ematen dizkiegu lau pilota: "Hautazazu, hautazazu!". Lauak pasatzen dituzte, lauak jotzen, eta erraten dute: "Hau sentitzen dut ona!". Goxotasuna da, edo ez dakit, baina sentitzen dute. Eta, ainitz, larruak ematen du hori. Ahuntza da guk pilotari ematen diogun larrua. Esku-huskakoa goxoagoa egiten dugu, ezker-paretakoa gogorragoa,

baina, hala ere, bere goxotasuna atxiki behar du. Eta larrugileak ez badu lan ona egiten, guk ez dugu lan ona egiten ahal. Eta jokalariak hor dira, eta makilarekin etortzen dira! Kar, kar...

Artisauaren lana duzu, hor bada artea.

Pilotagilea ez da hola eta hola egiten, bada prozesu bat, eta bataila ainitz ere badira artilearekin, larruarekin... Hogeita hamazazpi urte egin ditut pilota egiten, eta bataila ainitz ukan ditut, oroz gain hastapenean: ez nuen larrua ezagutzen, eta behar duzu josten ikasi, behar duzu jakin larrua zenbat tiratu behar duzun... Batzuetan, larrua azkar delarik, ez du balio ainitz tiratzea. Bertzean, xuhurrean etorriko zaizu, eta orduan behar duzu jakin zenbat tiratu eta zenbat ez. Ez baduzu lana ongi egiten, pilotak gibelerrat etortzen dira. Horrek ere min egiten du. Beti ez da materialaren falta, nirea ere izaten ahal da, zeren egun horretan beharbada josi ditut bortz pilota baina nire izpiritua ez zen lanean, eta pilota jostean behar da lanean kontzentratu. So behar duzu pilotari, ez duzu burua soberra altxatu behar! Kar, kar...

Beste enpresarik ere bada pilota egiten Euskal Herrian...

Bai, bakoitzak berea egiten du. Hemen [Senperen gaindi] badira biga, bertzea



ZUGARRAMURDI

"Aitaren partetik, aitatxi-amatxi Zugarramurditik heldu dira. Nire senarra da Huguenard, baina Ursuegi ematen dut lehenbiziki, gauza horrendako. Gerla zelarrik pasatu ziren Ursuegi haiek Zugarramurditik Sararat, eta nire aita Saran sortu da. Beraz, erdi saratarra naiz. Baditut asko familia alde honetan Donapaleun-eta, eta nire lanarekin erakatsi badela norbait, ursuegitarra, pilota munduan. Ursuegi, usoa da, erran nahi baita, ibilkia denetan".

NESKAK

"Orai badituzu neskak pilotan ere. Eta horiek piztu dute kuriositatea. Errugbian bezala. Lehen denak mutikoak ziren, orai neskak ere badira, eta jendea joaten da haien errugbi partidak ikusterat, neskak jokalariek baitira, ez borrokalariek. Hori da diferentzia. Emazteekin jokoa ikusten duzu, badira zaflako batzuk ere, baina guti. Pilotan, emazteak aritzen dira marmarika beren buruari! Ez dute erranen beren falta dela, ez: 'Pilota ez da ona, huts egin dut baina pilotak du defota!'".

Azken hitza

SINADURA

"Puntu finak egiten ditut, haria ongi gordetzen... Badut nire teknika, bakoitzak berea du, eta atxematen ahal da: 'To, pilota hau Martinak egina duzu!', erraten dute. 'Bertze pilota hori... ez dakit'. Kar, kar...".

1990ean sortua



BRINTZA
AHOIKULARITZA · CONSULTORIA

Aholkularitza zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditugu:

- Zerga-ordainketak
- Merkataritza
- Kontabilitatea
- Legedia
- Lan esparrua

Urbieta, 15. Hernani.
943 33 12 67
Brintza.com




**EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI**

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

duzu Landetan, eta Hegoaldean ere badira gehiago. Ni, oraiko Eskutik lan-tegian aitzin, bertze batean aritu naiz lanean, Senperen berean, Punpa enpresan. Lehenik, nagusi zaharrarekin [Mendiaga] egin nuen lan hogeit urte. Ondotik, nagusi berriak hartu zuen enpresa eta hamar urte egin ditut harekin. Eta hamar urte egin ondoan, kanporat pusatu nau.

Kanpo eman zintuen? Zendako?

Behar da jakin enpresa eramaten, behar da jakin langileekin nola izan, eta behar da jakin dirua sartzen. Ez du balio lan egitea ez baduzu dirua sartzen. Eta lehengo nagusi horrek ez du aski kasu egin diruari. Zozokeria da hori enpresa duzularik! Ni langiletarik zaharrena nintzen, lehenbizikoa, eta kanporat pusatu nau. Entseatu da ni enpresari huts eginarazten, ni kanporatzeko. Filmatu nau nola egiten nuen lan, kamera ere bazen langileen lana kontrolatzeko, eta behatzen zuen zenbat denbora ematen nuen pilota josten... Eta, hor, kraskatu dut. Zainak hartu zaizkit eta "aski!", egin dut. Medikuarekin mintzatu naiz, lanetik partitzeko. Badira zazpi-zortzi urte.

Gaizki pasatu zenuen...

Bai, ez nintzen ongi, ez. Zainak eri nituen, ez nuen gehiago pilota nahi, ez ikusi ere. Pilota partidarik ez nuen so egiten. Semea ere aritzen zen pilotan, baina ez nintzen ikusterat joaten, dis-gustatua. Eta zulo horretarik atera naiz, itsasoarekin.

Itsasoarekin?

Bai. Denbora tzarra delarik itsasoa haserrean da, eta harat nahi nuen. Senarrak, bertzalde, nahi zuen denetarik ere niri ongi egin, eta berari erraten nion: "Eramanen nauzu itsasorat?". Eta autoa hartzen zuen eta eramaten ninduen Donibanetik [Lohizune] Hendaiaraino, beti kostan. Eta autotik ateratzen nintzen itsasoaren indarraren xerka, eta itsasoak eman didan indar horri esker atera naiz zulutik. Maite dut itsasoa, ur hori ikusten duzularik arroken kontra joz bortizki. Haren indarra! Horretarik atera naiz. Ez nuen pilota gehiago egin nahi. Nahiago nuen menaia egin, etxean zer bait egin.

Baina azken zazpi urteak pilota egiten ari izan zara berriz.

Bai, etxean nintzen, eta, egun batez,

telefonoa. Sasoi hartan ez nuen arraposturik ematen, baina nire senarrak: "To, Martina, zuretako da!". Ellande [Alfaro] zen telefonoan, Eskutik lan-tegikoa. Banekien hasia zela pilota egiten, behar genuela mintzatu erran zidan. Eta hola partitu da gure harremana. Eta badakizu zer pentsatu nuen, zer sentitu nuen memento hartan?... "To, pasaraziko dut nire jakina!". Ez nuen pilota mundutik partitu nahi nire jakinarekin, nahi nuen pasarazi norbaiti. Hor sentitu dut: "To, orai da mementoa!". Eta hola.

Eta horrelaxe egin duzu zure azken bidaia hau, zazpi urte hauek, erretreta hartu arte.

Bai. Ellandek eta biok elkar ikusi genuen, mintzatu genuen. Ez zuen makinarik, dena eskuz ari zen. Egun batez, izan zuen galde bat, hogeita hamar pilota. Nahi zuten jakin zer preziotan egiten ahal genuen lana. Kalkuluak egin genituen eta igorri genuen gure dibisa. Ez genuen uste hartuko zutela, baina hartu zuten! Joko-garbi eta esku-huska pilotak egiten hasi ginen, baina bertzeak egiterat ere entseatzen ginen. Hola pasatu da. Ainitz eman diot Ellanderi [Alfaro], baina berak ere ainitz eman dit! Gure pilotak, poliki-poliki, onak egin ditugu! Ellandek berarekin hartu ninduen eta zazpi urte da berarekin ari naizela. Eta orai, utzi dut! Kar, kar...

Zure jakina edo jakitatea transmititu duzu, nahi zenuen moduan.

Bai, nire jakina pasatu dut Ellanderi, eta nire tokia hartu duen pertsonari. Behar nuen pasatu, eta egin dut, eta kontent naiz. Nire lanak balio izan du. 17 urtetarik utzi nuen eskola, ez nuen diplomarik, baina hala ere nire bizia erreusitu dut. Memento tzarrak pasatu ditut, baina kontent naiz, erreusitu baitut nire bizia: erreusitu dut lanean, eta erreusitu dut familian. Badut senar ona, eta baditut bi seme, lau haur ttipi ere bai orai, eta nire semeek ere erreusitu dute beren bizia. Orai lasai naiz. Lana utzi dut, baina atea ez dut hetsia. Pert-sua eman du Ellandek hori nire erranez: "Berriz artio adixkidea / atea duzu zabalik / ez da bukatzen gure bidea / birunga bat da bakarrik / Ezin utzi ezin ahantzi / lankide maite egina / garai ederrak zuri eskerrak / gure eskutik Martina". ●



Hiru panpinadun matrioxka eta Europar Batasuna



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Ukrainako gerran elkar konektatuta dauden hiru gatazka autonomo daude, hiru panpina dituen matrioxka bat bezala da. Lehena, txikiena, ukrainarren artekoa da. Batzuek ukrainar izatea ekialdeko ahizpatasuneko kide izateko modu bat bezala ikusten dute; besteek, aldiz, ukrainartasuna Erdialdeko Europako nazionalitate bat bezala identifikatzen dute Errusia *asiarrari* kontrajarriz. Batzuek Mosku bilatu zuten babesa, besteek Washingtonen. Azken horien aliatuak indartsuagoak direnez, besteak beste, estatu kolpe bat eman ahal izan zuten eta gerra bat hasi Donbassen.

Bigarren panpina Ukraina eta Errusiaren arteko gatazka da, lehenengoa barnebildu eta desitxuratu duena. Errusia beldur da NATOren zabalkundeaz eta uste du Ukrainak Washingtoni eman dizkiola bere etxeko giltzak. Honek nazionalismo errusiarra armatu du, bere bertsi muturrekoenean pentsatzen duena ukrainar nazioa ez dela existitzen (sic). Aldaera moderatuak aldiz, ukrainar nazioa aintzatetsi bai, baina errusiar anaia-ahizpa nagusiaren eraginpean egon behar duela defendatzen du; tartean badira Ukrainako Estatua egun dena baino txikiagoa izan beharko lukeela uste dutenak. Azkenean, Ukrainan sinaturiko bake akordio desberdinak bete ez direnez, frustrazio horretatik etorri dira Krimeako anexioa, Moskuaren babesa errepublika sezesionistei eta

AEBek odol berria behar dute Txinari aurre egiteko, horregatik ari zaio Bruselas Washingtoni inoizko aberastasun transfusiorik handienetako bat egiten

Ukrainako errusiar inbasioa.

Hirugarren panpina, handiena eta gainerako biak irentsi dituena protagonismo guztia kontzentratuz, nazioarteko hegemonia borroka da. Iparralde globalak Hegoalde globalaren kontrako borroka biziki azkartu zuen 2008ko krisiaren ostean. Borroka horretan AEBek motzean lotu behar dute EB, horregatik, Washingtonek Ukrainako gatazka gogoz elikatu du hasieratik. Lloyd Austinek, AEBko defentsa idazkariak, esan du gerra luze bat nahi dutela Errusia higitzeko ukrainarren lepotik; gatazkaren sua piztuta izateak NATO kohesionatu eta EB Washingtonen interesetara ainguratu mantentzen du.

2019an, Pentagonoarentzat lan egiten duen RAND fundazioak argitaraturiko txostenak zioen Errusiar paranoia

sorrarazi behar zitzaioela ariketa militarrek eginez bere inguruan, Bielorrusia xakean jarriz, tentsioa areagotuz Erdialdeko Asian eta Errusia desprestigiatuz eta jazarriz. Mosku probokatu nahi zuten Ukrainako agertokian erantzun bortitz bat eman zezan, aitzakia izan zedin bere kontra delegaturiko gerra bat burutzeko, eta inoiz ikusi den eraso eta gerra ekonomiko bortitz eta handiena gauzatzeko. Mendebaldeak hartu dituen neurriak txostenak proposatzen zituenak dira, baina Iparralde globala bakkarririk geratu da Hegoaldeak eta Ekialdeak ez dituztelako babestu neurri horiek. Bestalde, Errusia bere aliatuekin erantzunak artikulatzen hasi da eta uste baino hobeto eutsi dio bere ekonomiak.

AEBek odol berria behar dute Txinari aurre egiteko, horregatik ari zaio Bruselas Washingtoni inoizko aberastasun transfusiorik handienetako bat egiten. NATOko herrialdeen gastu militar igogorra iparramerikar armagintza industria-joango da. Errusiar gasaren ordez, AEBek Europari berea askoz garestiago saltzen dio energiaren prezio gorakada indartuz. Ondorioz, inflazioa harrotuta dago, euroa hondoratuta, eta europar industriak lehiakortasuna galduko du nazioarteko merkatuetan, batez ere AEBko enpresen mesedetan eta EBeko txiroen kaltetan. Zoritxarrez hori guztia ez da sorpresa bat: beste behin EB ez da gai bere interesak Washingtonen aurrean defendatzeko. ●

Ederki toreatutako zezenak gara



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Utzi egin diot politikako albisteak fundamentuz segitzeari. Prentsari gainbegiratu azkarra gosaritan, geroagoko elkarrizketa edo erreportaje interesgarriren baten hautaketa, eta irratiko albistegi laburren zurrumurrua dutxa hartu bitarteko atmosferan. Kito, hori da nire denbora baliotsutik gertakari freskoak ezagutzeari eskaintzen diodan tartea. Total, zertarako? Nahi dutenaz informatzen zaigu, komeni zaienaz baino ez, interesatzen zaien bitartean, eta nahi duten moduan interpretaturik, noski. Hobekiago bizi naiz horrela, lasaiago, amorratio txikiagoarekin eta buru-argiago.

Ez, ez dezazuela gaizki interpretatu. Ez da politika interesatzen ez zaidanik, gertatzen denak eragiten ez digula pentsatzen dudarik, edo ez-jakintasunean gozo, nire ongizatea bermatzea beste helbururik ez dudarik. Kontua da ez zaidala iruditzen inon entzuten denik boterearen errelato ofizialetik benetan aldentzen den diskurtsorik, eta ez bakarrik bere medio propioetan, harritzekoa ez litzatekeena, baita diskurtso horren kontra daudela dioten beste horien ahotik edo lumatik ere. Ñabardurak ñabardura, boteretsuei interesatzen zaizkien interpretazioak dira guztiak, edo galera handirik ekarriko ez dietelako erraz so-

portatu ditzaketanak, kasurik onenean.

Sistema autoritarioen ezaugarria da ideologia bakarra soilik baimentzea, baita bortizkeriaren mehatxu gogorraren bitartez *status quo*-aren kontrako altxamendu oro geldiarazten saiatzea ere. Demokratikoeak, ordea, adierazpen askatasuna dute ezaugarri, sistema horren demokrazia-mailaren neurria ematen duena gainera, beste askatasun batzuekin batera.

Ez diot ezer berria, badakit, baina autoritarioak izanik demokrazia ez mozorroturik agertu nahi dutenen kasuan oraindik sortzen den nahasmenagatik aipatzen dut. Askatasuna dagoela sinestarazi behar dute (ideologia monolitikoarekin munduan agertzea gauza lotsagarria delako, baita lotsagabeenak diren erregimenentzat ere) baina daukaten botere-monopolio horretatik amiñi bat ere galduko ez dutela segurtatuz, noski.

Disidentzia onartzen dutela itxura egin behar dute, baina garesti ordaindu nahi ez dutenez, disidentzia benetakoa izango ez dela bermatu beharra dute, ez dela izango erregimena benetako arriskuan jar dezakeen horietakoa. Operazio kosmetikoaren makinariari falta zaien pieza besterik ez da horientzat iritzi-aniztasuna, muntaiari ezarri beharrekoa, bai, baina hobekiago funtzionatu

dezan, inoiz ez sistema hondatzeko, ea ikasten dugun. Horrela, pentsamendu kritikoa garatuko den orbita diseinatzeko dute, ongi zedarrizten erreferentzia markoa, eta toki estrategikoetan ezartzen haratago begiratzeko oztopo izango diren hormak. Garaiotan, boterea bera da ideologia ofizialari ustez kontra egiten dion ideologia iraultzailearen fabrikatzailea ere.

Ahal badute, noski. Eta horretara noa.

Euskaldunokin oso erraz dutela. Aski dutela probokazio-estrategia xumea gure norabidea ezartzeko, gure mugimenduak aurre-ikusteko, gure politika gidatzeko. Erreakzio-politika hutsa bilakatua da herriaren erresistentzia sendo behar lukeena; mendeetan zehar egin digutenagatik harridura/kexua oraindik adierazi, eta gurekin errukitu daitezela eskatu.

Horri esaten diogu politika. Eta hala da, bai. Baina espainola (edo frantsesa).

Ederki toreatutako zezenak gara, noraezean eta desesperatuta toreroak nahi duen norabidean soilik mugituz, odolustuta hiltzera ez beste inora goazen inozente gaixoak. Gustu txarreko espektakulua da, baina tira, zezenketak maitatzeko bezain gustu txarra duten espainol horiendako egiten dugu azken batean. Auzo lotsa. ●

Konexioa



**NEREA IBARZABAL
SALEGI**
BERTSOLARIA

“Orrialde batean idatzitako berbak osatu gabe daude. Ez-fikzioko obra, poema edo nobela amaituko dira baten batek hartu eta bere arretea eskainitakoan. Konexioa kolaboratiboa da. Berbak irakurri egin behar dira esanahia izan dezaten”.
–Kae Tempest, *On Connection*–.

Zuk emango diezu esanahia berba hauei. Zubi bat agertu da bion artean, eta letrarik letra zaramatzat begietatik helduta, bazatoz. Beharbada ez dugu beste ezertan bat egingo zuk eta biok, edo hori uste izan dugu, gehienetan “besteak” definitzeak definitzen duelako “ni”-a, baina oraindik hemen jarraitzen baduzu, baliteke gure ateak hasieratik zabalik egon izana, baliteke hizki hauek garandu ahala gure buru barruetan entzuten dugun ahotsa berbera izatea biontzat. Zein ahots entzuten duzu zuk? Nik hau.

Tempestek dio 2014ko ikerketa batean fenomeno kurioa frogatu zutela. Hainbat laguni eskatu zioten bideo batzuk ikusteko. Irudietan aktoreak ageri ziren eskuak ur izoztutan sartzen, pertsona ezezagunak ikusleentzat. Antza denez, ikusleen eskuetako tenperatura jaitsi egiten zen irudi hauei erreparatu ahala. Parekoaren egoerari fisiologikoki erantzuteko gai garela egiaztatu zuten horrela, enpatia fisikoa ere izan daitekeela, alegia.

2017an ildo bereko beste ikerketa bat egin zuten, eta ondorio berera iritsi ziren orduan ere. Antzerki obra bat ikusten ari zen publikoaren bihotz taupadak monitorizatu zituzten. Berehala jabetu ziren taupadak sinkronizatu egiten zirela, ikuskizuneko une berdinetan bizkortuz eta mantsotuz. Erantzun-sistema honek erakusten du hasieratik gaudela prestata ulermen emozionalerako eta talde kohesiorako.

Alferrikako samarra irudi dezake honek guztiak Hirugarren Mundu Gerraren atari moduko honetan, hainbeste denean elkarrengandik urruntzen gaituena, hainbeste amildegia daudenean gure bizimoduaren artean. Batasunerako deia tranpa bat izan daiteke, argi dago hori.

Baina, oraindik zubi honetan jarraitzen baduzu, nahi nuke zuk jakitea nire atearen gaineko ardura hartuko dudala, eta zabalik utziko dudala ahal bezain bestetan, zirrikitu bat bada ere. Saiatuko naizela oskol ez bilakatzen eta errua beti besteari ez egozten, kalean, oholtzan, pantailaren beste aldean. Atea zabalik utzi dudana aldiro harritu nauelako nork gurutzatu duen, eta zerbait ikasi dudalako beti. Itxitzat neuzkan ateak ere zabalik zeudelako askotan. Agian ez gara zubitik haratago joango, baina begira, honaino iritsi gara elkarrekin. ●

Seinaleak



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Hegazkinez bidaiatzen dudanean bakarrik egiten dut maiz. Egun osoa neukan Santiago Compostelan egoteko hegazkina hartu baino lehen. Lan eguna zenez, bakarra nintzen museoetan eta liburu dendetan. Maria do Cebreirorenak erosi nituen. Xela Arias zenari buruzko erakusketa batean sartu nintzen, hor ere bakarrik: *A poesía do retrato*. Erakusketak egilearen poema bilduma bat eta Xulio Gil argazkilariak 80ko eta 90eko hamarkadetan egindako erretratuak biltzen ditu. Bikotea osatzen zuten orduan. Biluziak ziren denak. Niri Amaia Lasaren poemak etorri zitzaizkidan burutara. Kalea gurutzatu eta arte garaikide museoan sartu nintzen. Guido

Van der Werberren bideo bati begira geratu nintzen, ez dakit zenbat denboraz. Izotza hausteko itsasontzi bat zen, eta pertsona bat zegoen aurrean. Maitasun hautsi bati begira egongo baintz bezala sentitu nintzen. Batzuetan gorroto dut gauzei erreparatzeko dudana joera geldiezina, besteen seinaleak interpretatzera bulkatzen nauena. Bizitzeak errazagoa beharko luke, eta esaten dugunak horixe izan beharko luke: esaten duguna; baina nago denok ahal duguna egiten dugula, ahal dugun bezala maitatzen dugula. Cebreirorenak poltsan gorde ditut eta aireportuan best seller bat erosi dut oharkabean pasatzeko hegazkinean. ●

Gure helmuga: sexu askapena



HIRUKI LARROSA

Lau urte dira Hiruki Larrosa proiektua abiatu genuela. 2018tik parekidetasun eta LGBT+ gaien bueltan lanean; eragiten, hausnartzen, sortzen, ikertzen... Bide ezberdinetatik eraldatzen eta iraultzen. Alegia, transfeminismotik formazioa, aholkularitza, ikerketa, bidelaguntza eta proiektu integralak garatzen gabiltzan hiru maritxu gara gu.

Eta ARGIAko lagunek eskaini diguten txoko honetan ere hausnartzen eta pentsamendu kritikoa sustatzen arituko gara. Sexu askapenerantz garrantzitsuak iruditzen zaizkigun gai ezberdinak plazaratuz.

Polemikoak edota interesgarriak zaizkigun gaiak ekarriko ditugu tarte honetara. Izan ere, Twitter formatuko debateak gailendu diren honetan, elkarriketa horiek lasaitasunez eta behar duten denbora hartuta egin behar dira iruditzen zaigu, eta ez sare sozial digitalen bat-batekotasun eta erritmoen konpasean. Txoko honetan idatzi ditza-kegunek, txiolandian bezala, karaktere muga bat badute ere, aukera ematen dute txio-hari amaigabe bat egin baino, hitzen jolasean gehiago aritu, debate-gai

Politika identitarioetan erortzen ari ote da LGBT+ mugimendua? Zein da feminismoaren eta sexu askapen mugimenduaren arteko harremana Euskal Herrian?

ezberdinak plazaratu eta hainbat ertz ukitzeko.

Jendarte eraldaketarako ezinbestekoa den pentsamendu kritikoa sustatzeaz gabiltzanean, nahitaezkoa da pentsamendu eta erregimen zisheterosexuala ere kritikoki aztertu eta iraultzeko beharra. Horretarako, feminismoarekin batera, sexu askapena borroka interesgarria zein baliagarria izan daiteke. Guk ez dugu zalantzarik, ez baitago askapenik, sexu askapenik

ez bada. Horregatik, honetara ekarriko ditugunak, sexu askapen borrokaren bueltakoak izango dira.

Zabaldu nahi ditugun meloiak askotarikoak dira. Politika identitarioetan erortzen ari ote da LGBT+ mugimendua? Zein da feminismoaren eta sexu askapen mugimenduaren arteko harremana gaur egun Euskal Herrian? Egia al da sexu askapen borroka edota feminismoa borroka sektorialak direla eta ez dutela benetako indar iraultzailerik? Zein borroka subjektu sartzen dira transfeminismoan? Bazterretan sortzen diren hegemoniek eta horiek sortzen dituzten dinamikak askatzaileak dira? Ala menperatze logikak errepikatzen dira hemen ere? Eta jarrera trans-baztertzaille "feministak" zer? Eta denok desheterosexualizatzen bagara?


Horrelako eta bestelako galderen bueltan aurkituko gaituzue noizean behin atal honetan. Izan ere, lagunok, ezin diogu utzi elkar zainduz eztabaidatzeari eta hausnartzeari, bestela logika eta praktika menderatzaileengandik askatzea ez da posible izango. Hurrengora arte. Besarkada hirukoitz bana! ●





Ez galdu **Azken yámana**
Alfons Rodríguez-en dokumental laburra ↑

 argia.eus/multimedia



2.300 bideo baino gehiago ikusgai
Erreportajeak, film laburrak, dokumentalak, solasaldiak...

Azken yámana

Cristina Calderón *amona* hil da, Ameriketan, Suaren Lurraldean, 6.000 urtez bizi izan ziren indigenen yámana hizkuntza hitz egiten zuen azken pertsona. Berarekin izan ginena duela zenbait urte. Desagerrarazi duten hizkuntza eta herri baten kontakizuna da hau.

✍️ JOAQUIM M. PUJALS 📷 ALFONS RODRIGUEZ

Joan den otsailaren 16an, 93 urte zituela, *amona Cristina* zendu zen COVID-19aren ondorioz, eta milaka urteko kultura eta hizkuntza aberats eta sofistikatu gehiena betiko joan zen berarekin. Cristina Calderón yámana edo yagana hitz egiten zuen azken pertsona zen, eta duela 6.000 urte baino gehiagotik Amerikako hegoaldeko mugan ezarritako herri horretako azken kide etnikoki garbia, beraien hitzetan.

“Nire arreba Ursula hil zenean, bakar-bakarrik geratu nintzen, gure hizkuntza hitz egiteko inor gabe”, azaldu zigun Puerto Williamsen kanpoaldean zuen etxetxo zuri apalean, munduko bigarren herri hegoaldekoenean. Ursula 2003ko apirilean hil zen. 2005ean, berriz, Emelinda Acuña hil zen, azken-aurreko hiztuna. Ordutik, Txileko Go-

bernuak eta UNESCOk Giza Altxor Bizi izendatu zuten Cristina; eta hala, Suaren Lurraldeko uharteetan zuhaitz-azalez egindako kanoatan ehizan eta bilketan aritzen ziren nomada horien hizkuntza-
ren gordetzaille bakar bihurtu zen.

Gainerako yámanak –mendebaldeko kolonoek yaganak deitzen diete–, 50 baino ez dira –Cristinak bi senarrek izan zituen bederatzi seme-alabetatik bizirik irten ziren zazpiak, hamalau bilobak eta birbilobak barne–, eta gehienak Villa Ukikan bizi dira. Beste indigena batzuekin edo hamarkada gutxitan kultura hori desagertzera bultzatu zuten zuriekin egindako mestizajearen emaitza dira. Batzuek planetako hizkuntzarik hegoaldekoena lardaskatzen duten arren, edo zati batean ulertzen dutela dioten arren, inork ez zituen menderatu misiolari britainiar batek XIX. mendea-



ren amaieran Yagana-Ingelesa hiztegiaren jasotako 32.000 hitzak.

“Espainiera bederatzi urterekin ikasi nuen. Iloba baten aita *gringoa* zen, eta *de poquito* erakutsi zidaten”, gogoratzen zuen Cristinak Beagleko kanalera begira zegoen etxebizitzako ia altzaririk gabeko jangela hutsean. “Orduan denek hitz egiten zuten yámana, baina gero hiltzen hasi ziren, eta ni bakarrik geratu nintzen. *Guaguek* (haurrek) ez zuten ikasi nahi izan. Lotsatuta zeuden. Zuriek barre egiten zieten”, zioen, hitzak etenaldi luzeekin arrastaka eramaten zituen bitartean.

36 urteko Cristina Zárragak, bere bilobetako batek, ezkondua eta Alemanian bizi dena, yámana kultura desagertzea saihestu nahi izan zuen zenbait liburu argitaratuz. Jada heldua zela ezagutu zuen amona eta bere arbasoen



lurraldean lan horretan hainbat urte ematea erabaki zuen. Liburu horietan bildu zuen matriarkak gogoratzen zituena hiztegiaren, abestien eta ipuinen zati bat.

Luis Gómez Villa Ukikako komunitateko presidentea da eta bera ere biloba: “Hizkuntza salbatzeko borrokan oso atzeratuta goaz”, esan zigun Cristina artean bizirik zela. “Eta denboraren aurkako lasterketa bat da hau. Gure kultura desagertuko den beldur gara. Etorkizuna ilun samar ikusten dut”, kexu zen 47 urteko irakaslea. Muturreko lekue-tan aritu da irakaskuntzan Gómez: hiru ikasturtetan Frei base txiletarrean irakatsi zuen, Antartikan, eta beste lautan Puerto Toron, globoaren hegoaldean dagoen giza kokaleku iraunkorrean, Puerto Williamsetik 40 kilometrora, Navarino uhartean bertan.

“Hamarkada askotan,
gure jendea lotsatu egin
da bere nortasunaz.
Eskolan estigmatizatuta
geunden.
Gure herentziaren
galeraren zati handi bat
horri zor zaio”

Luis Gómez
Villa Ukikako presidentea

LOTSA ETA ESTIGMA

“Hamarkada askotan, gure jendea lotsatu egin da bere nortasunaz. Eskolan estigmatizatuta geunden. Gure herentziaren galeraren zati handi bat horri zor zaio”, azaldu zigun irakaslea. “Ez dugu gehiegi egin gure ondarea erreskatatzeko”, gehitu zuen.

Ikastaroak antolatuta izan diren arren, “jendea ez da joaten, inork ez du ulertzen zergatik. Agian ez da praktikoa, baina norberak berea dena ikasteko harrotasuna izan behar du”, dio Patricio Chiguayk, Cristinaren iloba batekin ez-konduetako 61 urteko arotzak. *Amonaren* etxe ondoan dagoen beste batean bizi dira. Bere ustez, “zazpi edo zortzi pertsonak bakarrik hitz egiten dute apur bat” yámana. “Nik ez dut menderatzen, baina uler dezaket”, dio. Bere bi semeek, ordea, “galdu egin zuten”.

Yámana ikastaro batean ikastea ere ez litzateke erraza izango. Thomas Bridges misiolari anglikanoak 32.400 hitz baino gehiago bildu zituen XIX. mendearen amaieran yagana-ingelesa hiztegian –berak izendatu zuen yagana bezala, Yahgashaga toponimoagatik–. Aldiz, edozein herrialde garatutako pertsona kultu batek asko jota 5.000 hitz inguru erabiltzen ditu. Eta a zer nolako hitzak dituen yámanak! *Mamihlapinatapai* munduko zehatzena omen da Guinness Errekoren Liburuaren arabera. “Bi pertsonaren arteko begirada –esan nahi du–, eta horietako bakoitzak espero du besteak egitea biek nahi duten zerbait, baina inor ez da ausartzen hastera”.

Bestalde, alfabeto bat asmatu behar izan zen, inoiz idatzi ez den eta ahaiderik ez duen planetako hizkuntza hori paperera ekartzeko, eta ez dago haren gramatikari buruzko azterketarik. Badirudi hitzen ordena ez zela oso garrantzitsua hizkuntza honetan.

Klima azpipolarra zakarra izan arren –Antartika mila kilometrora baino ez dago–, yámanak ia biluzik ibiltzen ziren. Itsas otsoaren gantz geruza batek –yámanen harrapakin kuttunak, zetazeo, hegazti eta itsaskiekin batera beren dietaren zatirik handiena osatzen zutenak– hotzetik babesten zuen beren gorputza, enbor sendokoa eta hanka mehekoa, arraunlariak zirelako.

SARRASKIA

Yámanak familia-talde txikietan bizi ziren, ez zuten buruzagirik, eta bi sexuek onarpen bera zuten. Sekula ez ziren asko izan, fiordoan eta glaziarren arteko habitat haizetsuak ez baitzuen askorako ematen. Europako misiolariak XIX. mendean iritsi zirenean 3.000 yámana inguru zeudela uste da. Bost hamarkada geroago 130 geratzen ziren.

Suaren Lurraldeko Uhartetako Handian (48.000 kilometro koadro), bertako herriak suntsitu zituztenak, ona o selk’nam herria kasu, natiboak hiltzen zituzten ehiztari profesionalak izan ziren, zeintzuek ardi etxaldeak zabaldu nahi izan zituzten lurralde horietan –tartean Julius Popper ankerrak– eta haien aurka borroka egin zuten herritarrek, askok bizia galduz. Suaren Lurralde hegoaldeko herrietan aldiz, yámana eta kawesqar herrietan, atzeritarrek ez zuten batere interesik, irla txiki malkartsu eta basotsuak ziren eta ez zuten etekin ekonomikorik ikusten kanpotarrek, baina beraiek ekarritako gaixotasunek –elgo-

rria eta baztanga, adibidez– eragin zuten biztanleriaren beherakada. Horri gehitu behar zaio balea-arrantzaleek eta otso-ehiztariak herri hauen elikadura iturri nagusiak suntsitu izana eta misiolari britainiarrek bortxaturiko akulturazioa. Herri baten desagerraraztea izan da emaitza.

Mamihlapinatapai
hitz yámana omen da
munduko zehatzena.

Esan nahi du bi
pertsonaren arteko
begirada, eta horietako
bakoitzak espero du
besteak egitea biek nahi
duten zerbait, baina
inor ez da ausartzen
hastera

MODERNITATERA

Lakutaia le Kipa izan zen modu tradizionallean bizi izan zen azken yámana. 1983an hil zen eta ez dakigu zein adin zuen heriotzaren unean. “Ni beti bizi izan naiz orain bezala, ez ditut kanoak ezagutu eta ez dut igarabarik ehizatu, baina urruneko izeba baten argazkiak ikusi izan ditut, arroparik gabe”, azaldu zigun Cristina Calderónek, halako galderak deseroso sentiarazten zutela argi utzi ostean. Aspaldi egin zuten yámanek modernitateranzko bidea. Bere gurasoek azken *chiejaus* delakoan hartu zuten parte, antzinako ezagutzak komunitateko kide berriei transmititzeko inimizazio errituala.

Yámanen inguruko lehenengo erreferentzia Jacques l’Hermite nabigatzaile holandarrari zor diogu; 1624an egin zuen topo beraiekin. Nabigatzailearen barkutik lur hartu zuten hamazazpi itsasgizon hil zizkioten yámanek. Apenas egon zen beste kontakturik herri horrekin, XIX. mende hasierara arte. Garai horretan, armada britainiarrak Beagle bergantina bidali zuen urrutian zeuden



eta aldi berean munduko merkataritzarako funtsezko jotzen zituen zonaldeetara, nabigazio kartak osatzera. Oraindik mende bat falta zen Panamako Kanala inauguratzeko.

Suaren Lurraldea kartografiatzeko Beagle itsasontziko FitzRoy kapitainak egin zuen lehen bidaian –espedizioko arduradunak bere buruaz beste egin ondoren hartu zuen gidaritza FitzRoyk–, lau yámanek ontzi bat lapurtu zioten aitzakian kapitainak haiek bahitu eta Londresera eraman zituen, *zibilizatze*-ko asmoz. 9 urteko neskato bat, 14 bat

Lakutaia le Kipa izan zen modu tradizionalen bizi izan zen azken yámana. 1983an hil zen eta ez dakigu zein adin zuen heriotzaren unean.

urteko mutikoa eta 20 eta 26 urteko bi gizon bahitu zituen. 20 urteko gaztea Europara iritsi eta gutxira hil zen, gainerakoek garaiko heziketa jaso zuten, Gilen IV.a eta Adelaida errege-erreginari aurkeztu zizkioten, eta bi urteren ondoren haien etxeetara itzuli zituzten.

Wulaia badian, Navarino irlaren mendebaldeko kostaldean, plaka batek gogorarazten du Charles Darwinek lur hartu zuela bertan, 1833ko urtarrilaren 23an. Apaiz izateko bidean zen eskarmentu gutxiko naturalistak Beagle itsasontziaren bigarren espedi-

zioan hartu zuen parte, aitaren diruari eta harremanei esker, eta munduari bira eman zion. Tartean, Londresen bi urtez hezi eta beren etxeetara itzuli zituzten yámanak aurrez aurre ezagutu zituen. Urte batzuk geroago, misio anglikano bat ezarri zuten lurraldean, baina bertakoek eraso egin eta zortzi europar hil zituzten; bada, europarren aurka aritu zenetako bat Londresera bahituta eramandako indigenetako bat izan zen: Jemmy Button –edo bere yámana izena erabiliz gero, Orundellico–.



aholkukoop
PIKULIA KONTADIVA ERROTATA

EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA

aholku@aholku.eus · 943 005 680
aholku.eus



Wulaia badia (goian), Navarino irlan. Bertara itzuli zituzten Londresera bi urte lehenago bahituta eramandako yámanak, eta bertan lur hartu zuen Charles Darwinek 1833an. Beheko argazkian, antzinako lur yámanak ikus daitezke, Suaren Lurraldeko Uharte Handian.





Muskuiluen hilerrian daude lurperatuta indigenak, begetazioa pixkanaka jaten ari den garai bateko gurutzeak lekuko isil.

SUAREN LURRALDEAREN TOPONIMOAREN JATORRIA

Habitat izoztu honen muturreko hoztari aurre egiteko, yámanek itsaslehoiaren koipea igurzten zuten azalean. Eta hori nahikoa ez zenean, sua pizten zuten, baita uhartez uharte ibiltzeko kanaletan barna zuntz begetalez egindako kanoetan joaten zirenean ere.

Berotzeko, edo agian baita elkarren artean komunikatzeko ere, pizten zituzten su hauetako batzuk gauean distiratsu ikusi zituen Fernando Magallanes esploratzaile portugaldarrak, Atlantikoak Pazifikoarekin bat egiten duen lotura aurkitu aurretik, eta horregatik izendatu zituen artxipelago hauek Suaren Lurralde.

Magallanes Filipinako indigena batzuen aurkako borrokaldian hil zen eta Juan Sebastian Elcano gipuzkoarrak bukatu zuen espedizio haren helburua –bidaia hasi zuten 247 kide-tik 35ekin–, munduko lehen zirkumnabigazioa osatuz.

“GIZAKI ZITAL ETA MISERABLEAK”

Espezieen eboluzioaren teoria bultzatu zuen Charles Darwinek tankera penagarria hartu zien hango biztanleei. Oso gogorra izan zen haiek deskribatu eta epaitzerakoan: “Ez dut beste inon ikusi gizaki zital eta miserableagorik”, idatzi zuen. “Hain traza nazkagarriak ikusita, kosta egiten da sinestea gizakiak direla, mundu bereko biztanleak direla”, zioen bere egunerokoan, eta kanibalismoa leporatu zien, arrazoirik gabe. “Gutziz frogatuta dago neguak gosea areagotzen duenean tribuko adineko emakumeak akabatzen eta jaten dituztela, txakurrak baino lehenago”, zeren eta, etniako kide baten hitzak zirela argudiatuz, “txakurrek igarabak ehizatze bali dute eta atso zaharrek ez”. Orduz gerotik, ez dago aditurik okerreko adierazpen horiek babestu dituenik.

Naturalistaren aurreiritziek herri hauek markatuta utzi zituzten hamarkada luzez. “Darwin saiatu

zen leku honetan gizakiaren jatorria aurkitzen, giza eboluzioaren bere teoriak demostratzen. Eta adierazpen larri horiek natiboenganako mespretxua sustatu zuten, baina orain indigenen suspertze bat dago”, dio Salvatore Cirillo napolitarrak. Punta Arenasen (Txile) dagoen Maggiorino Borgatello museo salesiarraren zuzendaria da Cirillo, artxipelagoko herri natiboiei buruz ikasteko lekurik interesgarrienetakoa.

1941 arte, azken yámanak, ehun baino gutxiago, ehizatik eta Muskuluen Kalan itsaskiak arrantzatzetik bizi ziren, Navarino irla iparraldean. Aurten, Txileko Gobernuak behartu ditu hasierako euren bizilekura bueltatzera, gaur egun itsasontzi-basea den Williams Portura. Muskuiluen hilerrian daude lurperatuta indigenak; begetazioa pixkanaka jaten ari den garai bateko gurutzeak eta maskor-pilaketak dira itzuliko ez den aspaldiko bizimodu baten aztarnak. ●



Ni ez naiz gordeko ezta isilduko ere”

NEKANE TXAPARTEGI NIEVE

18/98 makrosumarioan atxilotu eta torturatu zutenetik 23 urtera, espetxeari ihes egin zionetik hamabostera, apirilaren 5ean bueltatu zen etxera Nekane Txapartegi asteasuarra. ARGIAren Lasarteko egoitzara bisitan, hitz egin digu erbesteaz, euskaraz, torturaz, feminismoaz, herri eta naziogintzaz, egoera politikoaz, errelatoaren batailaz, Suitzan eta Euskal

Herrian babestu duten sareez, borrokaz. Hitz egin digu emakume gorputzetik, buru-bihotzetik, goxo baina epelkeriarik gabe. Ihesean jaiotako alabak eskola hasi behar duela-eta Suitzara bidaiatzekoak dira elkarrizketa osteko egunean, etxe bilakatzen jakin zuten erbestera. Oraingoan, baina, herrikideak agurtuta eta luze gabe berriz ere bueltatzeko.

 **ESTITXU EIZAGIRRE ETA ZIGOR OLABARRIA**
 **DANI BLANCO**

Herrira itzultzerako bidaian atxilotua izateko arriskurik bazenuen?

Bagenekien ezin genuela hegazkinez etorri, nazioarteko atxilotze agindua indarrean zegoelako. Azken unera arte zain geunden, epaileak ziurtagiririk emango al zigun, errepidean poliziak geratuz gero epaitegira noala adierazi ahal izateko. Bezperatan jaso genuen idatzia eta hor nazioarteko aginduak altxatzen zirela esaten zuen. Hala ere, Euskal Herrirako muga pasatzerakoan baneukan halako beldur bat.

Suitzako elkartasun talde batekin etortzea erabaki genuen, batetik elkarrekin borrokatutako itzulera hori bizitzeko eta bestetik, bidean atxilotuko banindute, juridikoki babestuta egoteko eta alabari laguntzeko. Hamar lagun etorri ginen

furgonetan eta atxiloketa emango balitz bakoitzak argi zeukan bere funtzioa: nork deituko zion abokatuari, nork jakinaraziko zien hedabideei... Eszenatoki posible guztiak aztertuta nituen, banekielako Guardia Zibilak argazki bat nahi zuela: epailearen aurretik atxilotuta pasatzea. Nirekin erra berezi bat dute, "beren izena nazioartean zikindu dudalako".

Egun horretan guardia zibila oso presente egon zen nire herrian, esanaz bezala: "Badakigu hemen zaudela eta hemen gaude". Konturatu nintzen herrian trauma kolektibo bat dagoela haiekin, nire atxiloketa eta torturekin lotzen baitituzte. Nik erakutsi nien bizirik atera nintzela komisariatik eta nire ideiekin jarraitzen dudala, nahiz eta jakin hor daudela. Ni ez naiz gordeko ezta isilduko ere.

Nola planteatu duzue emozionalki Euskal Herrira itzulera?

Ihes egin nuenean inor agurtu gabe joan nintzen, banekien joaneko txartela hartu nuela baina itzulera egiten genuen borrokaren arabera izango zela. Nire ametsa zen gatazkaren konponbidearekin denok batera herrira itzultzea. Hori ez da gertatu.

Hamabost urteren ondoren ez nuen ihesaren haustura errepikatu nahi: Suitzan eraiki dugun etxearekin moztu eta dena utzita itzultzea. Argi daukat ez dudala Suitza ala Euskal Herria hautatu nahi. Bietan ongi sentitzen naiz, hartzen ditudan erabakiek eragina dute alabarengan eta berak ere erabakitzen du. Suitzan hazi da, Suitza da ezagutzen duena. Bion beharrak asetuta dauden



...been nit ka ...alul

mor

ez

da

ilegala

URGIA #68 MBOLO MOYE DOOLE RLEART

lekuan geldituko gara. Nire ametsa litzateke borrokan jarraitzea bi lekuetan.

Euskal Herriari beste leku edo ikuspegi batetik begiratzeko aukera ematen dit, beste dimentsio edo perspektiba bat. Uste dut aberasgarria dela.

Hamabost urteko erbestean nola eutsi diozu euskarari?

Militantziatik. Eta nire izana, nortasuna euskara delako. Ama izan nintzenezan garbi neukan: zer eman behar diot umeari Suitzan ihesean? Ni naizena, nire sentimenduak eta bizipenak euskaratik datoz. Nahiz eta jakin erbestean euskarak arriskua ere ekar dezakeela, nor naizen identifikatzeko. Baina hori gabe zer naiz ni?

Euskara eman nion alabari ingurune ez euskaldun batean. Euskaraz egingo zuen beste jenderik ez zegoenez, Pirritx eta Porrotxen materiala izan zen nire laguntza, alabak ikusteko hizkuntza hau ez zela gu bion arteko zerbait bakarrik, haratago badagoela mundu bat euskaraz bizi dena, euskaraz pentsatzen duena eta borrokatzen duena.

Klandestinitatean, ilegalitatean, ume bati nola azaldu zergatik hitz egin behar dugun euskaraz? Kontatzen nion euskal piratak ginela, gure altxorra euskara dela eta hori gorde behar dugula. Eta batzutan hori gordetzeak esan nahi duela beste hizkuntza hitz egin behar dugula ez dezaten jakin euskal piratak garenik.

Etorri garenean alabak ikusi du gutaz haratago badagoela herri bat hizkuntza horretan bizi nahi duena. Baina, aldi berean, nola esango diot alabari hau Euskal Herria dela, adibidez garraio publikoan denak jo eta su gaztelaniaz ari direnean? Suitzatik etorri berri den eta euskaraz hitz egiten duen pirata bati nola esan hau zergatik den Euskal Herria? Zer da euskaldun izatea, zer ez? Nik uste euskarak izaera aldarrikatzailea galdu duela. Lehen euskara ere askatasunaren aldeko borrokekin lotua zegoen. Utzikeria eta axolakaberia handia sumatu ditut.

Eguneroko bizitza aurrera ateratzeko, iheslari askok gorriak pasa dituzte. Eta zuk?

Gogorra izan da. Batez ere emakume gisa ihesean egotea. Iheslaria gizartetik desagertzen da. Legez kanpo egoteak ekartzen du ez existitzea eta ikusgarri ez egotea. Baina aldi berean ume batek eramaten zaitu ikusgarri egotera, ume batekin ezin duzu etxetik atera gabe egon, eta ikusarazteak arriskua zekarren. As-

kotan buruak gauza bat esaten zuen eta bihotzak bestea, eta bihotzari kasu egin diot askotan eta asmatu.

Dena ezin nuen kontatu, baina esaten ez baduzu, askotan arriskua agian handiagoa da. Eskolan adibidez, pentsa umea erori eta ospitalera eramaten dutela, baina ezin du joan bere egoera ez dagoelako erregularizatuta... Isiltzeak arazo handiagoa dakar eskolari esateak baino: "Gure egoera oso berezia da eta zerbait gertatzen bada lehenbizi niri deitu". Beti dilema bera: norarte komeni zait esatea? Baina ez badakite nola lagunduko naute? Ez jakiteak edo ez ikusteak zail egiten du elkartasuna bideratzea. Zenbat eta ikusgarriago egon, jendeak laguntzeko modua dauka.

Une larriak izan ditut: haurdunaldia ezin izan nuen prestatu umea leku segurur batean jaio zedin. Pentsatu nuen leku batera iristea han erditzeko, eta umea ia bidean jaio zen. Baina ez zegoen besterik aurrera jarraitzea baino. Bere bizitza nire eskuetan zegoen.

Gorriak ikusi ditut baina beti bilatu dut babesa, eta babestua sentitu naiz erbestean ere. Elkartasunari emakume aurpegia jarriko nioke, emakume eta ama bezala enpatia edo ahizpatasuna ezagutu dut, jendeak laguntzeko prestutasuna agertu du.



Memoria, kontatu nahi ez dena kontatzea da"

Erbestean nola planteatu dituzu euskal herritarrekiko harremanak, jakinik egun gutxiren buruan agurtu egin behar direla?

Ni nola nengoen, alabak horixe bizitzen zuen. Horregatik ikasi nuen nire burua babesten, alaba ere babesteko. Babesteko modua, Suitzan ere harremanak eraikitzea zen, lagunak eta ingurune bat izatea. Ezin nuen Euskal Herrian egon, beraz, zer ekartzen zidan beti Euskal Herrian gertatzen denari begira zain egoteak? Erabaki nuen, "Euskal Herrikoa naiz, baina Suitzan bizi gara. Ume honek beharrak ditu hemen, sozializatu behar dugu, bertako hizkutzak ikasi eta bizi".

Migrazioan dabilen jendearengan askotan ikusten dut ez dagoela ez han eta ez hemen. Nik hautatu nuen nirea ahaztu gabe han ere eraikitzea eta borroka egitea.

Horrek erraztu die gu agurtzea euskaldunei ere: badakite Suitzan ez garela umezurtz geratzen, badugula etxea eta familia politikoa.

Erbestea bihur daiteke norberaren herri-etxe, beraz.

Nire herria da borrokatu ahal dudan lekua. Filosofia horrekin, etxe bilakatu ditzaket nagoen leku guztiak. Garbi dut aske izateko jaio naizela eta aske izateko borrokatuko dudala, nagoen leku guztietan.

Erbestea espetxe ikusezina da. Euskal Herriko jendartearentzat silueta edo itzal bat naiz paneletan eta Suitzako jendartearentzat existitzen ez den norbait. Baina nik erbeste horri borrokadun bizitza bat eman diot etxe bilakatzeko.

Munduko errefuxiatu guztiak dira politikoak?

Bai, denak sistema kapitalista, patriarkal eta arrazista honek eragindako errefuxiatu politikoak dira. Ez zait gustatzen desberdintzea eta hierarkizatzea ezta presoan artean ere, desberdintasuna da presoak edo errefuxiatuak berak izaera hori nola ematen dion, nola ulertzen duen eta nola borrokatzen duen.

Gure jazarpena gure ideiegatik da eta horregatik zigortzen gaituzte legedi bereziekin. Beraz, estatu zapaltzaileek egiten gaituzte euskal preso politiko eta aldi berean izaera hori kentzen saiatu. Horregatik, preso politiko izaera aldarrikatzen dugu.

Asilo politikoa ere gizonen gizonentzako egina da. Garai batean asiloa lortu edo eskatzen zutenak gizonak ziren. Orain, aldiz, gehiengo emakumeak gara baina asiloa eskatzean egiten zaizkigun galdeketeetan ez daude emakumeoi zuzendutako protokoloak. Nire kasuan zentratuta egin genuen kanpainarekin lortu genuen indarkeria sexista asiloko arrazoi izan zedin bultzatzea eta ezagutaraztea (Istanbul Konbentzioan). Azken errefuxiatu oldeetan gehiengo emakumea da eta hauetatik gehienak beraien herrian edo bidean bortxatuak izan dira. Haien artean ere balio ahal izan dezan borrokatu dut.

Hamabost urteotan ETAk borroka armatua uztea erabaki du, bideak



aldatu dira... Nola bizi izan duzu hori guztia politikoki eta emozionalki Suitzatik?

Ni joan nintzenean konfrontazio fasean geunden, baina 2007an jada ikusten zen gizartea zertarako prest zegoen eta estrategiaren inguruko eztabaida hasi zen.

Suitzatik eztabaidak beste dimentsio batetik bizi izan nituen, begirale bezala. Irakurtzen nuenetik ezin nuen errealitatearen argazkirik egin.

ETAk armak herriari ematea erabaki zuenean, ez zidan alaitasunik sortu, galderak baizik. Pentsatu nuen: eta orain zer? Nola konponduko da preso, iheslari eta deportatuen auzia? Hutsune bat sentitu nuen, tristura, fase bati bukaera eman ezina, Suitzan bakarrik nengoe-lako, ezin nuelako bizi Euskal Herrian piztu zela zirudien ilusioa. Partekatze, elkartrukatzeko beharra sentitzen nuen baina ezin ihesean egonda.

Erabaki zen borroka molde bat baztertzea, beste borroka molde batzuek indarra hartu zezaten eta iruditzen zitzaidan jendeak edo herriak ez zuela mezu hori ulertu. Zeren gelditze bat ekarri zuen. Aldiz, Espainiako Estatu bere aparatua eta arma guztiak erabiltzeko prest zen. Gure aurkako jazarpenak, nazioartean ere jarraitzen zuen.

“

Alabari Suitzan ihesean euskara eman nion, erbestean arriskua ekar badezake ere. Baina hori gabe zer naiz ni?”

Urteak joan urteak etorri, kaleak de-saktibatzen sentitu ditut. Ez zela bidearekin asmatzen, eta presoen gaia korapilatuta zegoela. Gu gatazkak sortu dituen preso edo iheslariak gara eta konponbidean ere parte izan behar dugu. Ezin ulertu eta ezin ekarpenik egin sentitzen nintzen. “Korapilatuta gaude presoekin baina non dago herri proiektua, nazio eraikuntza?”, pentsatzen nuen. Ez nuen ulertzen nola ezin ditugun mugimendu bezala bi gauzak batera egin. Baina egunkariak irakurrita eta jendearekin hitz eginda bakarrik ezin nuen errealitatearen mapa osatu.

Uste dut hamabost urteren ondoren orain ari naizela hori egiten. Ulertu nahi dut gertatzen dena, ondoren ekarpena egiteko. Hala ere, uste dut egun ere nazioartean lan handiagoa egin dezakedala hemen baino.

Zein da Euskal Herrira etorritakoan osatu duzun egoeraren argazkia?

Globalizazioaren eta neoliberalismoaren aurrerapenak edo ikusgarritasunak deitu didate arreta. Beti egon dira, baina gatazka armatu batek ekartzen du beste zapalkuntza horiek pixka bat ezkutatzea. Multinazionalentzat, kapitalarentzat hau Espainia da eta mezu guztiak ezberdintasunik gabe bideratuak dira eta zoritxarrez kontra askorik gabe jasoak.

Aldarri politikoen kaleko presentzia desagertu da: pintadak, kartelak eta horiek denak. Eta subjektu politiko borrokalarietako aldarria, maitasuna leku pribatura eraman da, leku itxietara. Horrek beldurtzen nau eta ez nago ados. Nola eraiki dezakegu memoria edo etorkizun bat herrian gertatu dena eta gertatzen ari dena aitortu eta aldarrikatu gabe? Memoria ez da isiltasunetik egiten, memoria, kontatu nahi ez dena kontatzea da, ezkutuan gordearazi nahi dituzten



biolentziak agertzea. Ez dut nahi Espainiako estatuak garaile/garaitu eskema batean kontatzea zer izan den gatazka, eta ez dut nahi gizonen kontatzea edo kontatu gabe geratzea emakumeok egin dugun borroka. Memoria feminista idatzi behar dugu eta emakumeon gorputzak memoria bizidunak dira. Hortik kontatu nahi nuke.

Bagenekien zer ekar zezakeen guk egindako hautuak eta borrokak, eta egindakoa aldarrikatu behar dugu, kontatu eta transmititu. Errelatoa guk egin behar dugu eta bizirik atera garenok ardura kolektibo hori badugu. Beldur handia ematen dit euskal gatazkarekiko erreferentzia nazioartean *Patria* izateak. Guk ez badugu aitortza eta errelatoa eginen besteek egingo dute. Horrela ezin dugu osatze lan bat itxi eta oinarriak jarri berriro gertatu ez dadin. Kontatzeko bideak bilatu eta ausartak izan behar dugu.

Estatua ez dago berea ez den errelatorik onartzeko prest, ordea... Badakit jazarpen politikoa dagoela, kriminalizazioa... baina ikusi behar da ba-

“

Korapilatuta gaude presoekin gaiarekin baina non dago herri proiektua, nazio eraikuntza?”

koitza zertarako prest dagoen eta pauso batzuk eman behar ditugu. Ezin dugu beldur horretan trabatuta geratu, tresnak bilatu behar ditugu. Presoak ateratzea tokatzen da eta borrokatu behar dugu iheslariak etortzeko, baina nola etortzen garen ere zaindu behar da. 1999an nire aurka hasitako jazarpenaren ostean ez dut etorri nahi berriz ere beldurrez bizitzera, esaten dudanaren edo pentsatzen dudanaren arabera kartzelara joateko arriskuan. Hau baldin bada askatasuna, kokatzen naiz lehena-

go borrokatzea erabaki nuen abiapuntu berean: edo belauniko bizi behar dut edo borrokatzen dut.

Hamabost urteren ondoren, konturaten naiz ume utzi nituen pertsona horiek etxean ez badute landu ni nor naizen, ez dagoela nirekiko loturarik. Lehen preso eta iheslariak nazioa askatasunaren aldeko borrokan norbait ziren, asko borrokatu edo eman duten erreferentziak. Ez dut behar kalean pasatuta inork miresterik, baina jendeak ez jakitea ere iheslaria izan zarela edo iheslariak daudela! Eta ihesaren inguruan ere jende askok zer gutxi dakien konturatu naiz, ihesak zer dakarren, zer arrisku dituen berarekin...

Hori da egin dezakedan ekarpena, mikrofonia ematen zaidanean edo arkatza, aldarrikatzea eta nire kasua pertsonaletik kolektibora eramatea. Hori egiteko beharra sentitzen dut. Hemen eta hemendik kanpo ere bai.

Publikoki hitz egiteko beldurra dago gizarrean. Beldurrari nola egiten diozu aurre eta arriskuaren zer irakurketa egiten duzu?

“Noiz egin ahal izango dut torturen salaketa euskaraz?”

"Nire tortura salaketak inoiz ezin izan ditut euskaraz egin. Espainiako Auzitegian gaztelaniaz egin behar izan dut eta Suitzan alemanez.

Horrek alde batetik babeste-ko aukera ekarri dit, kontaketa ez hain sakon egiteko, distantzia batetik egiteko, beraz, defentsa modu bat izan da. Baina beste batzuetan komunikazioa moztu dela sentitu dut. Noiz egin ahal izango dut salaketa politikoa euskaraz?

Ez dut itzulpena hautatu, egiten den itzulpena ez delako zuzena: esaten dute 'honek esan du...' eta zeharkako horretan ez da berdin transmititzen. Gertatu zena zuzenean nire ahotik entzun zezatela nahi nuen, gero ez zezaten esan ez zekitenik edo salatu ez nuenik".

Batzuetan joera paternalistak agertzen dira. Beldurrak norberarenak dira eta askotan bestearengan jartzen dira. Batzuetan joera dago bestea babesteko, baina agian jarrera horrekin bestea babestu beharrean frenatzen ari gara. Nahi nuke gurekin hitz egin dadin eta gutako bakoitzak erabaki dezan norbera zertarako arriskuak hartzeko prest dagoen. Baina baita ere kontziente naiz nik egiten dudanak kolektibo batean izan dezakeen eraginaz. Denak neurtu behar dira.

Bakoitzak ikusi behar du zein egoera zehatzean dagoen ere. Nik gaur egun nire aurkako salaketa bakarra bi paper faltsu eduki izana da, beraz, publikoki esaten dudanak ez ditu oso ondorio larriak izango eta prest nago besteek eman ezin duten pausotxo bat emateko.

Kolektiboan aztertu nahi nuke nola egin dezakegun beste pauso bat, besteengan eragin negatiborik izango ez duena eta ekarpen kolektiboa egingo duena.

Zein borroka moldetatik jo behar ko litzatekeela iruditzen zaizu?

Gure utopia edo helburuak instituzioetatik lortuko ditugula pentsatzea erre handia da. Sozialdemokrazia doinua hartzen diot horri.

Instituzioak tresna bat dira gure utopia lortzeko, baina ez dira ezer kalean ez bada- go mugimendurik, markatzen eta babesten. Iruditzen zait, instituzionalizazioaren aldeko apustuak beste guztia desaktibatu duela. Nire ustez hor akats handia dago. Hori nola gertatu den ez dakit, erabakiguneak, modelo neoliberalak izan duen eragina, legalizazioan sartu beharrak eta berriz ilegalizatzeko beldurrak eragin ote duen gauza asko uztea... Borroka ideologikoa, oinarri lana da eraldaketarako funtsa.

Horrek preso, iheslari eta deportatuen eremurako ere balio du?

Presoak kalera atera nahi baditugu, instituzioetatik harago beste borrokamoldeak erabili behar ditugu, presio soziala. Nire kasuan ere argi ikusi dugu, horrek bultzatu dituela bi estatu.

Falta zait ados egon edo ez egon, norbaitek azaltzea "begira, presoak ateratzea lortzeko era bakarra hau da". Gardenak izan behar dugu eta jendeari egia esan. Jendea galduta ikusten dut, "presoak ateratzeko pausoak ematen ariko dira" esanaz, argitasunik gabe eta beraien esku ez balego bezala zerbait egitea, partidu politikoei delegatua eginkizun hori. Zintzoagoa litzateke esatea "begira, apustu hau egin dugu, ordura arte denok aguantatu eta bultzatu...".

Eta presoak ateratzean eta iheslariak itzultzean zer? Orduan hasiko gara nazio eraikuntzan? Ezin dugu manifestazioetara eta hauteskundeetara mugatu. Herrigintza egin behar da auzoetan eta kaleetatik, mugimendu independentistak beti jarraitu beharko luke kalean. Sistema eta denbora asimilatzen ari zaizkigu.

Kalean dauden mugimenduak ikusteko denborarik izan duzu?

Egia esan kalean ez ditut asko ikusi, Iruñean "BostEHun eta zutik!" martxoak gazte uholdea. Bestela, sigla berri asko ikusi ditut. Nik masa mugimenduetan sinesten dut eta Europa mailan ezker mugimendua oso atomizatuta dago. Neoliberalismoak horixe egiten du, zatikatu klase, identitate eta genero gisa. Eta gu zatiketa horretatik antolatzen bagara, oso eroso dago horrela.

Mugimendu interseksional batean sinesten dut, zapalkuntza guztietatik

askatuko nauten borroken metaketan. Mugimendu feminista kenduta ez dut ikusten inor interseksionalitate hori independentziarekin, autodeterminazio eskubidearekin lotuta lantzen.

Hutsuneak ikusten ditut eta borroken globalizazioa somatzen dut. Hemen sortu diren talde berri horiek ez dute desberdintasun handirik Suitzako taldeekiko, eta ezin dira teoriak, antolaketa Europako beste herrialdeetatik hartu eta bere horretan Euskal Herrian aplikatu, hemengo errealitatea aintzat hartu gabe. Teoria eta akademia asko ikusten dut eta praxi falta. ETaren ondorengo generazioek beste errealitate bat dute eta gazteek bideak bilatu behar dituzte, erradikaltasuna beste era batera ulertzen dute eta hori ondo dago... baina ikusi edo irakurri dudanak berrikuntza edo alternatiba baino aspaldiko eztabaida zaharkituek ekarri dizkit gogora. Zenbait taldetan zapalkuntzen hierarkizazioa ikusten dut, eta horrek ez dit balio. Nik ez dut klase borroka feminismorik gabe ulertzen eta alderantziz ere ez, feminismoa klase borroka gabe.

Gustura egingo nuke elkartruketa, eztabaidatan parte hartu... baina uste dut espazioak falta direla, bakoitza bere gotorlekuan dagoela, nor duen arrazoi edo besteak zer egiten duen gaizki seinalatzen. Batzen gaituen horretan jarri beharko genituzke indarrak. Bakoitzak zer utopia eta zer alternatiba dituen da kontua. Denon artean alternatiba bat garatu ote dezakegun eta indarrak metatu.

Mugimendu interseksional batean sinesten duzu. Nondik eta nola eraiki?

Uste dut oinarri lana egin behar dugula, kaleko lana, zapatistek bezala denbora asko hartu elkarrekin hitz egiteko, eztabaidatzeko espazioak eta denbora galdu baititugu. Borroka ideologikoa egin beharko genuke, behetik gora, desberdintasunak aberastasun modura ikusiz. Eta gero hori dena antolatuta eta artikulatuta.

Subjektu politiko bakoitzaren aktibazioa da borroka irabazteko modua. Su txikiak piztu, barruan egiten ditugun iraultza txikiak ekarriko baitute iraultza handia.

Berriz ere zimenduak jarri behar ditugu: lehen garbi zegoen zein zen gure utopia, orain agian horretaz ere hitz egin behar da, bakoitza non dagoen eta utopia aldatu bada, eztabaidatu. Eta gero tresna edo borrokamoldeak aldatu, bideak bilatu gure helburuak lortzeko.

Nik mugimendu feministatik ikusten dut ekarpenik handiena, bera gabe ez dudalako askapen prozesu bat imaginatzen. Ezin da euskaldun bezala askatu eta emakume bezala lotuta segi. Mugimendu feministak badu gaitasuna aipatu ditugun zapalkuntza horiek guztiak bateratzeko: migrazioa, lan sektore feminizatuak, generoak, pentsiodunen eskaerak... egunero diskriminazio horiek gure gorputzak zeharkatzen dituztelako. Ez hemen bakarrik, Suitzan eta nazioartean ere ikusi dut gure artean saretzea posible dela, patriarkatuak zapaltzen gaituelako herri guztietan, eta erantzuna kolektiboa eman daiteke, leku bakoitzean bere ezaugarriekin.

23 urte atxilotu zintuztenetik, 15 ihes egin zenuenetik. Atzera begira jarrita zer ikusten duzu?

Argi dut ihesaz berriz ere erabaki bera hartuko nukeela, nire buruan ez delako sartzen horrelako kondena politiko bat onartzea. 1999ko atxilotetarekin hasi, eta 18/98 azukiko azken pertsona izan naiz herrira itzultzen. Ziklo hori nolabait ixten da baina Euskal Herrikoa ez da itxi, gatazkaren sustraiak bere horretan jarraitzen duelako. Ez da posible ni osatzea aparatuek errepresiboa zain dudanean nire edo nire alabaren kontra erabiltzeko. Bada oraindik zer borrokatu, eta aparatuek denak desegiten ditugunean itxiko da ziklo osoa Euskal Herriari begira.

Eta pertsonalki itxi al duzu ziklo bat?

Ziklo pertsonala torturaren aitortzarekin bukatuko litzateke agian. Egia Zor elkarrearen bidez egin dut prozedura estatuarren terrorismo biktimatik aitortu nazaten baina ez nuke nahi aitortza hori kaxoian geratzerik. Salaketaren bidea jarraitu nahiko nuke. Gainera aitortza batek ez dit balio hurrengo egunean gauza bera gertatu ahal bazait.

Aitortza politikoa ez da gu biktimatik bezala onartzea, baizik, tortura zeinek eta zertarako erabili duen aitortzea. Ez dut nahi torturazailerak barkamena eskatzetik, eskatzen badit ere ez diot barkatuko. Nik nahiko nukeena da torturazailerak esatea zergatik torturatu gaituzten. Tortura tresna terrorista bat bezala erabili dute sistematikoki, Euskal Herria izutzeko eta bere proiektua deuseztatzeko. Aitortza kolektibo hori behar dut, ez nire kasuaz aritzea.

Aitortza politiko horrek bidea emango liguke nazioartean salaketa egiteko bategatik, eta bestetik tortura aparatua deusezteko. Izan ere, Espainiako estatuan tor-



tura preskribatzen da baina nazioarteko legedian ez. Gutako asko gaude ibilbide juridikorik egin ezinik tortura salaketak oso zaharrak direlako. Ez dut sinisten instituzio horietan, baina bizirik atera nintzen komisariatik, eta ahal dudana leku guztietan salatuko dut tortura, nigatik eta bizirik atera ez diren guztiengatik.

Eusko Legebiltzarrak torturatu bezala aitortzen bagaitu, torturatuok salaketa bidea egin beharko luke nazioartean eta Euskal Herriaren memorian jaso eta zabaldu. Horren esperantzarak ez dut eta gure bideetatik salatzen jarraituko dut.

Ia hilabete egin duzue bertan, eta bazoazte berriz ere.

Bihar goaz, eta maleta egiten hasterako noiz itzuliko garen daukat buruan. Itzuli ahal garela jakiteak beste perspektiba bat ematen dio gure bizitzari, alabak eta biok orain arte inoiz eduki ez duguna. Erraztu egiten du joana eta etorria.

Hemengoekin agurtzea tristea da, baina hangoak zain daude. Hemen agurra da baina han ongi-etorria. Eta handik hona gatozenez, alderantziz.

Zure etxekoek zer irabazi dute zure Euskal Herriratzarekin?

Lasaitasuna. Atzo ahizpak esaten zidan antsietate handia sortzen ziola non eta nola gauden ez jakiteak eta irudikapen txarrak egiteak. Oso gogorra zela berri baten zain egotea. Nik beste era batera bizi nuen, "ez badago berririk, hobe". Izan ere, etorriko zen berria atxilotetarena izango zen. Ahizpak esaten zidan, "bai, bai, zuretzat horrela hobe, baina guretzat-

“

Aitortza politikoa ez da gu biktimatik bezala onartzea, baizik, tortura zeinek eta zertarako erabili duen aitortzea”

ko?”. Berak esaten zidan egoistatik begiratu, senidea preso dagoenean badakizula non dagoen eta arauak zein diren.

Nire amak ezin du bidaiatu eta hamabost urte hauetan galdera airean egon da: iritsiko da Nekane ama besarkatzen? Familian behar hori bagenuen. Ordua zen elkartzekoa.

Polita da ikustea urteotan elkartasuna ez dela nirekiko bakarrik izan, nire senideekiko ere egon dela. Herri bat dago, komunitate bat, elkar babestu duena. Suitzatik nirekin etorri diren lagunei ere eskerrak eman dizkiete elkartasunagatik, Suitzara bixitan etortzen zirenean haien etxeko atek irekita topatzen baitzituzten lotarako, eta norbaitek laguntzen baitzien hizkuntzarik ez zekitelako... orain elkartasuna bueltan ematen ari zaie Suitzatik etorritako lagunei. Bi elkartasun sareak bateratzea oso ederra izan da. ●

Auzitegietan zein da orain zure egoera?

Nola lortu duzue erakunde armatuko kide izatearen salaketa bertan behera geratzea?

Espainiak lehenengo aldiz nire estradizioa eskatu zionean Suitzari, Free Nekane kanpaina antolatu genuen. 2017an Suitzako espetxetik atera nintzen kalean borroka egin genuelako eta presio horrek behartu zituelako bi estatuak konponbide bat aurkitzera: medio hegemonikoetan ere torturatu gisa aitortzen ninduten eta Suitzako Gobernua ataka estuan sartzen ari zen. Preskripzioaren bidez estradizioa bertan behera utzi zuten eta kalera atera ninduten.

Kalera ateratzera nindoala Espainiak beste estradizio eskaera bat egiteko prozedura martxan jarri zuen, dokumentazio faltsua neukala argudiatuz. Hasieratik bai Suitzian eta bai hemen erakutsi genuen prest gaudela bigarren kanpaina baterako, ez genuela onartuko estatu torturazailerik batera estraditazterik.

Ikusten genuen denbora aurrera zihoala, Espainiako Estatu saiatzen zela sei hilero estradizio eskaera aktibatzen, baina Suitzak ez zuela aktiboki parte hartzen. Uste dugu Suitzak ez zuela bigarren estradizio eskaeran busti nahi, lehenbizikoan posizio txar batean geratu zelako. Suitzak galdetu zion Espainiako estatuari ea zehazki zer zeukan nire aurka. Eta auzia bere pisuz erori da, bi paper faltsu edukitzeak ez duelako sostengatzen ETAKo kide izatearen salaketa.

Kalean, baina linbo batean geunden, bahiketa administratibo-politikoan, ez genekien noizbait aktibatuko ote zuten estradizio eskaera. Nire alabaren egoera ere ezin zen erregularizatu, 13 urterekin ezin zen Suitzatik atera eta ni berdin. Barroterik gabeko espetxea zen Suitza. Hori apurtu behar genuen.

“

Zaila da ulertzea Espainiako Auzitegiak zergatik jazartzen nauen Suitzian nuen dokumentazioagatik”

Ikusita zein egoera dagoen Euskal Herrian eta zein egoera egon daitekeen eskuin muturra Espainian gobernatzera pasatzen bada... Gaia itxi nahi genuen, eta hori Espainiako Auzitegian egin behar genuen. Abokatuak ere esan zidan hau izan zitekeela momentua, gero zailagoa izango zela. Esan nion: “Galdetu, baina ez eskaini”. Niretzat garrantzitsua zen nik konponbiderik ez eskaintzea bi estatuei. Nire baldintzak ziren euskal herritar bezala munduan zehar ibiltzeko aukera bermatzea niri eta nire alabari. Ez nuen nahi Euskal Herrira etorri eta baldintzapean geratzea, ezin mugitu eta ezin hitz egin.

Uste baino lehenago eman da konponbide juridikoa, borrokaren bidez lortutako baldintzen barruan.

Zergatik joan behar izan duzu Madrilera, Espainiako Auzitegi Nazionalera, herrira itzuli baino lehen?

“Errebeldia” egoeran nengoen. 2019an deitu ninduten Auzitegi Nazionaletik, Bernara joan eta bideodeiez deklaratu nezan. Erabaki genuen Suitzako justiziak deitzen zidanean joatea, baina Espainiako Auzitegitik zetorren ezerekin ez kolaboratzea, tortura babestu duelako eta torturapean egindako deklarazioetan oinarritzen delako nire aurkako epai politikoa. Bernara joan nintzen eta hango fiskalari hori bera azadu nion. Deklaratzeari uko egin nionez, nazioarte mailako atxilotze agindua eman zuten nire aurka, eta “errebeldia egoeran” deklaratu ninduten.

Nazioarteko atxilotze agindua eteteko pasa behar genuen Espainiako Auzitegi Nazionaletik. Balantzan jarri nuen zer ekarriko zuen pauso hori emateak, zer askatasun ekarriko digun nire alabari, etxekoei eta niri, eta erabaki nuen ez zela hainbesteko desgaste politikoa, nahiz eta ez dudan onartzen torturaren aparatuaren babesle den epaitegi hori. Tramiteak oso motz iraun zuen eta ez nuen deklaratu beharrik izan.

Nazioarteko atxilotze agindua eteteko pasa behar genuen Espainiako Auzitegi Nazionaletik. Balantzan jarri nuen zer ekarriko zuen pauso hori emateak, zer askatasun ekarriko digun nire alabari, etxekoei eta niri, eta erabaki nuen ez zela hainbesteko desgaste politikoa, nahiz eta ez dudan onartzen torturaren aparatuaren babesle den epaitegi hori. Tramiteak oso motz iraun zuen eta ez nuen deklaratu beharrik izan.


Dokumentu faltsuak edukitzea da orain zure kontra dagoen salaketa. Horrek zer arriskutan jartzen zaitu?

Bai, egozten didate bi karnet faltsu neuzkala Suitzian atxilotu ninduten momentuan. Hori ez dut inoiz ukatu. Suitzak ez du inoiz interesik izan karnet horiekiko. Suitzako jendearentzat oso zaila da ulertzea Espainiako Auzitegiak zergatik jazartzen nauen Suitzian nuen dokumentazioagatik.

Abokatuaren arabera, delitua ez da larria eta gehienez sei hilabetezko espetxe zigorra dakar. Eta ez du Auzitegi Nazionalerako sala batek epaituko, bere egitura barnean dagoen zigor-arloko epaitegi zentralak baizik.

Udazkenean izango da bi karnet faltsuen auzia. Ordurako aurrekari penalik izango ez dudanez, jarri dezaketen espetxe zigorra bertan behera geldituko da eta ez dut espetxera sartu beharko.

Eurovision, gerra edo bakea nahieran



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Sternkirke (Flandria), 1692ko abuztuaren 3a. Frantziaren eta Augsburgotar Ligaren arteko Bederatzi Urteko Gerraren baitan, lehenek mendean hartu zituzten flandiarrek –eta haiekien bat egindako espainiarrak, ingelesak, eskoziarrak eta alemaniarrek–. Sternkirkeko garaipena ospatzeko, frantziarrek konposizio bat eskatu zioten Marc-Antoine Charpentier musikariari. Charpentierrek *Te Deum* obra erlijiosa osatu zuen, kutsu militar nabarmeneko.

Bi mende eta erdi geroago, 1950eko hamarkadan, gerraosteko Europa berre-raikitzeke lanetan buru-belarri zegoen, baita arerio izandako herrialdeen arteko harremanak berregiteko ahaleginetan ere. Europako Irrati-Telebista Batasunak (EBU), harreman baketsu horiek jai giroan estutzeko abesti txapelketa bat antolatzea erabaki zuen eta 1956an lehenengoz egin zuten Eurovision Abesti Txapelketa. Paradoxikoki, Europako herrialde baten garaipen militarra eta beste askoren porrota ospatzen duen *Te Deum* pieza hautatu zuten txapelketaren himno gisa.

Himnoak himno, berriki Eurovisionek garbi adierazi du gerraren aurkako jarraera. Errusiak Ukraina inbaditu zuenean Suedia eta Finlandiako ordezkariak mehatxu egin zuten ez zutela jaialdian parte hartuko Errusiak parte hartuz gero. Otsailaren 25ean EBUk ofizialki Errusiako ordezkariak egotzi zuen 2022ko ekialditik; Europako lehen erakunde ofiziala izan zen Errusia “zigortzen”.



2020an Eurovision Abesti Txapelketa Tel Aviven ospatu zen eta Islandiako ordezkariak zuzenekoan Palestinaren aldeko aldarri laburra egitea lortu zuten.

Kontua da 1973an Israelek lehenengoz parte hartu zuela Eurovisionen. Israeldarren eta palestinarren arteko gatazka aspaldi piztua zen eta 1970eko hamarkada bereziki gordina izaten ari zen. Geroztik Israelek lau aldiz irabazi du Eurovision eta hirutan egin da jaialdia herrialde horretan. Eta sekula ez zaio boikotik egin. Azkenekoz 2020an ospatu zen jaialdia Israelen, eta herrialde guztiek txintik esan gabe parte hartu zuten. Islandiako ordezkariak, puntuaketen zain zeudela, Palestinako bandera eta palestinarren aldeko mezu bat erakustea lortu zuten segundo gutxi ba-

tzuez, antolakuntzaren arau eta neurri guztien aurka.

2005ean, jaialdiaren 50. urteurrenaren atarian, EBUk erabaki zuen ordu arteko irabazle guztien arteki onena aukeratu behar zela, eta ikusleek *Waterloo* aukeratu zuten, 1974an Abba talde suediarra ezagun egin zuen kanta. Abesti horretan Waterloo gudua maitasunaren metaforatzat erabiltzen da. Eta, hortaz, Eurovisioneko garai guztietako irabazle ezin egokiagoa da, gerra eta bakea, inbasioa eta maitasuna, politika eta musika komeni bezala ulertzen eta nahasten dituen jaialdiarentzat. Himnotik bertatik hasita. ●



4.000 urteko ontziaren azala

2018an Arkeologiako Alemaniako Institutuko ikerlariek 7 metro luze zen ontzi baten arrastoak aurkitu zituzten Mesopotamiako Uruk hiriko aztarnategian lanean ari zirela. Zehazki, bere garaian ontzia inpermeabilizatzeko erabili zuten betun geruza mehea besterik ez zuten aurkitu. Berriki, geruza ahula

buztinez eta igeltsuz babestu, laborategira eraman eta 3D eredu bat egin dute. Gainera, betunari esker ontzia 4.000 urtetan datatu dute eta zer materialez egin zegoen jakin ahal izan dute, geruzaren barrualdean kanaberek, egurrak eta palma hostoek utzitako aztarnak gorde baitira. ●

ZIBURUKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Euskararen errepublika, egun batez bada ere

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Gainean dugu Ziburuko 3. Euskal Liburu eta Disko Azoka. Aurtengoa ekainaren 4an ospatuko da eta maiatzaren 10ean prentsurrekoa eskaini dute antolatzaile diren Baltzan Elkarte ziburutarra eta ARGIAk. "Euskarak batzen du mugek bereizten dutena", azpimarratu dute euskara hutsezkoa eta Euskal Herri osoa –bai antolatzaileen eta bai bisitari, artista eta argitaletxeen aldetik– den Azokaren aurkezpenean.

Indartzen doa pixkanaka 2019an Azoka honen historian lehen leerroak idatzi zituena. Urtebeteko geldialdi behartuaren ondotik 2021ean bigarren edizio sendoagoa antolatu zuten egun osoko egitarauari eutsiz, ekitaldi

gehiago antolatuz eta argitaletxe eta diskoetxe gehiago gonbidatuz –22 argitaletxe izan ziren, lehen urtean 16 izan zirelarik– eta 2022an, oinarri sendoak eraikita, 33 argitaletxe izango dira Ziburun eta eguna borobiltzeko ez dira faltako bertsolariak, mahai-inguruak, kontzertuak eta haurrentzako ikuskizunak, besteak beste.

Euskara du oinarriarik sendoen Azokak. Oinarri eta helburu. Programazio kulturalak egun oso batez euskara hutsez bizitzeko aukera eskaintzen du, euskaraz komunikatzeko, harremanak egiteko, sorkuntzarako... Euskara baliatu nahi da batzeko gure artean ditugun mugak: Euskal Herria zatitzen duten muga administratiboak, euskaldun berri zaharren artekoak, kostaldekoak eta barnealdekoak...

AURTENGO BERRITASUNAK

Zubi lan horren beste atal bat izango da Azokari hasiera emango dion *Zubiburu* mahai-inguru. Bi idazle



gomitatu dituzte:

bata urtetan aritua eta karia horretara omenduko dutena, Janbattit Dirassar ziburutarra, eta bestea hasi berria den Amaiur Epher gazte izpurarra. Beren esperientziak trukatu dituzte, idazte lanaz, euskararen hautuaz, tratatutako gaiiez...

Horrez gain, aurren bi karpa egongo dira: Azokarena bata eta ekitaldi kulturalena bestea. 33 argitaletxeren –horien artean 9 diskoetxe eta autoekoizle– lanak ezagutzeko aukera izango dugu egun honetan, eta iragan urteko programazioa aberastuko dute beste hiru ekitaldik: bi musika saio eguerdiko pausan Boga eta Atalaia ostatuaren aurrean eta Pantzo Irigarainen ahotik umorezko saio bat arratsaldean. 19:00etan itxiko da Azoka eta 20:00etan Adar taldeak emango dio amaiera egunari.

Euskarak izango du bizia euskaradunok euskaraz bizi nahi badugu. Ziburun elkartuko gara, irakurle, euskararen errepublikan. ●



ARGIA, EUROPAKO HEDABIDE INDEPENDENTEN TOPAKETAN

Vienan, hedabideen jabetzaz eta funtzio publikoaz nazioarteko jardunaldia egingo dute maiatzaren 12tik 14ra, *Jabetza, hedabideak, publikoa* goiburupean. Eta ARGIAren ordezkaritza izango da han, antolatzaileek gonbidatuta.

Vienako Ekonomia eta Enpresaritza Unibertsitatean egingo da topaketa, eta hitzaldi eta mahai-inguru ugari aurreikusi dituzte, Europako hedabide independente askoren parte hartzearekin. Besteak beste, multinazionalen esku dauden plataformak erabiltzeko dakartzan kontraesanez, datuen jabetzaz eta hedabideak esku gutxiren menpe geratzearren arriskuaz hausnartuko dute.

ARGIAko Lander Arbelaitzek "Hedabideen jabetza, kapitalismotik harago" mahai-inguruan hartuko du parte, Alemaniako *Jacobin Magazine*, Grezian *The Press Project*, Austriako *Orange Radio* eta Europa ekialdeko *Baricada* medioekin batera. Langileona den hedabide gisa gonbidatu dute ARGIA, gure esperientziaren berri eman eta harpidetza eredia azaltzeko.

Topaketan, hedabideen jabetzaz eta funtzioaz ahobizarririk gabe hitz egiteaz gain, Europako komunikazio proiektu independenteen artean sinergiak bilatzen saiatuko dira. Zeregin horretan ere ariko da Vienara joango den ARGIAren ordezkaritza.

ARPELARRA LOREAN, ARDIAK GOSEAN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Lurra lantzen noiz hasi? Hori da baratzeke negu ondoreneko galdera ezagunena. Noiz amaitzen da negua? Egutegiaren mugarriarekin? Hotzak joan direla iruditzen zaigunean? Egun argia gaua baino luzeagoa egiten denean? Ez da erraza asmatzen. Horri tokian tokiko lurraldearen eta klimaren ezaugarriak gehituta, urteroko zalantza hor itzultzen da, beldur ttantta batekin belztua. Tokian-tokian erabaki behar da lan bakoitzaren unea noiz den. Huts, asmakuntza, porrot, arrakasta, poto eta menta denekin ikasten da, lan bakoitza noiz eta nola egin den emaitzak erakutsiko digu bidea. Bakoitzari berea, baratze bakoitzari berea, izan ere baratzea unibertso bat da; bat eta bakarra.

Badira toki bakoitzean lanak noiz egin erakutsiko diguten zantzuak. Gurean zabaldua den esaera batekin honela dio: sapelarra ihartzean lurra lantzeko sasoia etorri da. Sapelarra (*Stellaria media*) neguan hedatzen den belarra da. Gure inguruan bizi da: baratze, soro, lantzar, hormapean... Landutako lurretan, udazkeneko uztek libre utzitako hutsuneetan gozo hazten da, batez ere



ito gabeko lur heze ongarritueta.

Ongarri berdearen lana egiten du sapelarrak. Lurra airebistan eta izotzen eskura egon beharrean, estali eta babestu egiten du. Orain, egun argiaren luzerak eta eguraldiak lurra berotzen dutenean badoa. Ez da berozalea. Izar itxurako lore zuriekin (hortik *Stellaria*) loratu zen eta haziak banatzen dituen eran horitu eta ihartu egiten da, paisaia berezia sortuz. Horixe da bada lurra lantzeko garaia. Ez da, ez, horitzen toki guztietan batera. Baratze edo soro bakoitzean dago kionean.

Sapelar izena nondik dator-kion? Zapotik, sagutik, saporretik... denetik irakur-entzuten da. Beste izen asko du gurean sapelarrak: albaraka-belar, txabarkoi, txorien-belar, sapabelar, arpelar, sapiar, sagu-belar...

Pasa berri zaion berde sasoian entsaladan jateko ederra da, freskoa, bixia eta hurra gogorarazten duen dasta du. Egosita ere oso ona da. Japonian deabruengandik babesteko eta luze eta osasuntsu bizitzeko urtarrilaren 7an Jinjitsu egunean, Gizateriaren Egunean, Nanakusa-no-sekku "zazpi belarren jaia" ospatzen dute, zazpi

belar jenez. Tartean da sapelarra. Ez dabilta oker. Sapelarra aberatsa da osagai osasuntsuetan: C bitamina, kaltzio, silizio, magnesio eta potasioan, adibidez. Saponina ere badu eta horrek sendabelar ezaguna egin zuen aspaldi; batez ere azaleko arazoak eta arnas aparatukoak sendatzeko erabiltzen da.

Gurean esaerak hala dio: arpelarra lorean, ardiak gosean. Neguaren amaieran loratzen dela dio... Gure goseak uxatzeko, badakigu, oraintxe lurak landu eta ereintza eta landaketa lanetara eman gaitzen. ●

Fraisoro
eskola



Aurrematrikulazioa: Maiatzak 9-27

LANBIDE-HEZIKETA ZIKLOAK

Erdi mailakoak:

LOREZAINZTA eta LOREGINTZA
NEKAZARITZA eta ABELTZAINZTA EKOIZPENA
Berria: ELIKAGAIK ERLDATZEKO TEKNIKARIA

Goi mailakoak:

BASOA ETA NATURA INGURUNEAREN KUDEAKETA

Zizurkil, Gipuzkoa 943 692 162 www.fraisoroeskola.eus

BALERDIPEKO ERLEAK

“ERLEZAINZA MODERNOA LANDUZ HONETATIK BIZITZEA DA GURE ERRONKA”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

■ naxio Arin eta Mattin Jauregi gazteak daude duela urtebete inguru jaio zen Balerdipeco Erleak proiektuaren atzean. “Duela lauzpabost urte nire kasa erlauntza pare bat jarri eta erlezaintzaren inguruko ikastaroetan izena eman nuen”, azaldu du Jauregik. Arin laguna du, duela bi urte hasi zitzaion laguntzen, eta iaz, berriz, Bedaioko txokoan erlauntza gehiago jartzeko eta bien artean proiektu serioago bat abiatzeko erabakia hartu zuten.

ERLEZAINZA BERRIA ETA NEKTARRA BILTzea

“Eztiaz aparte, eztiarekin egindako bes-telako produktuak ere egiten ditugu, kosmetika adibidez, eta baita ezti-ura ere”, azaldu du Arinek. Betiketok ateratzea eta erlezaintza modernoan sakontzea da kideen asmoa, eta eztiarekin lotutako bes-telako bideak aztertzen ari dira horretarako. “Eztia, propolia eta oinarrizko beste gauzaren bat egin izan da tradizionalki gurean. Gu orain arte egon diren mugak nolabait hausten saiatzen ari gara”, gehitu du erlezainak.

Gure inguruan jasotzea hain ohikoa izan ez den erleen beste produktu bat ere egiten dute bi kideek. “Nektarra da gure produkturik esklusiboena. Orain arte inork



gutzik ateratzen zuen hemen, interesik ez zuela pentsatzen zelako”, dio. Loretik erleek zuzenean hartzen dutena da nektarra, gerora lehortzen utzi eta ezti bihurtzen dena. Bada, lehortze prozesu hori baino lehen ateratzen dute nektarra proiektuko kideek, eta gainera, lore bakar batena atera dezakete; sagarrarena, adibidez. “Sagarrak loraldi oso motza duenez, ez du denborarik ematen horren ezti ateratzeko, baina aurreratu eta nektarra ateratzeko aukera badago”, dio Arinek.

POLINIZAZIO ZERBITZUA

Proiektuaren beste adar garrantzitsuetako bat da polinizazio zerbitzua. Zoritxarrez, geroz eta erle eta intsektu polinizatzaile gutxiago dago munduan, eta hutsune hori betetzeko jarri dute zerbitzua. “Lehen erle asko zeuden, eta naturalki eta egoki egiten zen polinizazioa. Baina erle gutxiago dauden honetan, polinizazioak ez dira guztiz ongi ematen zenbait kasutan”, dio gazteak. Horregatik, inguruko ekoizleei, eta bereziki sagardogileei, polinizazio zerbitzua eskaintzen ari dira. Zertan datzan? Bada, polinizatu nahi den zonaldea bisitatzen dute balorazio bat egiteko, eta haien erleak tokira eramaten dituzte behar den denboran polinizazioa egin dezaten.

Eskutan dituzten egitasmoekin erlezaintzatik bizitzea da proiektuko bi kideen erronka, eta horretarako pausoak ematen ari dira: “Dena dela, argi dugu ez ditugula 600 erlauntza jarri nahi honetatik bizitzeko, gure zonaldean ez baitzaigu oso bideragarria iruditzen. Erleen garrantziaz jakitun gara, eta hori baloratu, honetatik bizitzeko apustua egin nahi dugu, baina erlezaintza tradizionaletik harago joanez”. ●



PUNK ARRASTOAK II

Gazte basatiak, absurdoak, tiroak, iraultza

Punkak pinturan izan zituen aurrekariez jardun genuen orrialde hauetan joan den astean. Lehen Mundu Gerraren ondoren Europan agertu ziren zenbait eztanda artistikori buruz arituko gara aste honetakoan, besteak beste dadaismoa, surrealismoa, mugimendu letrista, beat belaunaldia... eta Andy Warholi tiro egiteaz gain, SCUM manifestua idatzi zuen Valerie Solanas. Prest?

 IÑIGO BASAGUREN-DUARTE

Europa zaharrea kaosa eta hedonismoa hedatzearekin bat, beste mugimendu abangoardista bat hedatu zen 1920ko hamarkadan: dadaismoa, mugimenduen hastapenak aurreko hamarkadan aurkitzen badira ere. Asalduzko garaiak ziren: europar gazteek Frantzia eta Alemania arteko lubakietan infernua ezagutu zuten eta asko ez ziren itzuli; gripearen pandemiak heriotza hirietara hedatu zuen; eta Errusian mundua astindu behar zuten hamar egunak gertatu ziren. Heriotza oso presente zegoen eguneroko bizitzan, eta horren lekuko dugu garai honetan hildakoekin harremanetan jartzeko espiritismo saioek izan zuten arrakasta izugarria. Testuiguru hartan jaio zen dadaismoa, egoera ilun horren aurkako erreakzio bezala.

BIZITZAREN ABSURDOARI BARRE

Dadaismoa Zurich (Suitza) hiriko Cabaret Voltaire aretoan jaio zen, han egiten baitzituzten Hugo Ball eta Emmy Hen-

nings alemaniarrek beraien testuen irakurketak eta performance publikoak. Mugimendu horrek zerikusi handia zuen surrealismoarekin, hura bezala inkontzientetik sortzen zen arte-adierazpena baitzen. “Dada” hitzak ez du ezer esan nahi, gerrak sortu duen hondamendiaren aurrean ez baitago ezer gehiago esateko beharrik. “Dada” hitza, mugimendua izendatuko zuena, zoriz jaio zen, inolako asmorik gabe, inolako esanahi sakonik gabe, ezereza adierazteko asmo bakarrarekin.

Dadaistak, futuristak ez bezala, antibilizistak ziren. Cabaret Voltaire hartan gerraren ondorioz traumatizatuta zeuden pertsonak bildu ziren, haietako asko gerratik ihes egin zuten erbeste-teratuak ziren. Ez zuten atzera itzultzerik, ezagutu zuten mundua jada ez baitzen existitzen. Europa zaharreko gizartearen arrakala zabaldu zuen Gerra Handiak eta horren aurrean, arteak, behintzat dadaismoak, absurdoak gurtzea erabaki zuen.

Dadaismoaren barruan sortu zen lehen lana soilik fonemekin osatutako *Karawane* olerkia da. Ez du hitz ezagunik. Olerki hau ahots gutural eta basatiarekin irakurri zuen Hugo Ball dadaistak gordetzen diren grabazio eskasetan. Bartzuetan Mikel Laboaren *Lekeitioak* lan sortako abestia ekartzen du gogora, edo Akauzazte azkoitiarrek beraien herriko Matadeixen grabatutako abesti bat.

Dadaisten artean Hannah Höch-ek garatu zuen lana oso garrantzitsua izan zen punk mugimenduarentzat. Alemaniatar jatorriko emakume hori fotomuntaketaren aitzindarietako bat da eta bere *collage*-kin gizarte heteropatriarkalaren basakeriak gogor salatu zituen, bereziki belizismoa. *Collage*-ak punk mugimenduan oso hedatuta egon ziren eta, beste askoren artean, Crass taldearen ikurretako bat izan ziren. Musika taldea baina, kolektibo artistiko eta politikoa izan zen azkeneko hori, musikaren euskarriaren laguntzaz beraien mezua zabaldu zuena. Ikonoklastak ziren, garaiko ohitura eta

konbentzio sozialen aurka gogor egiten zuten. Bakezaleak ziren, dadaistak bezala, bizi zen gerra nuklearrarekiko beldur-raren aurrean pazifismoa eta naturaren aldeko aldarriekin erantzun zuten. Punk mugimenduaren barruko klixteen aurka ere bazeuden, drogen erabileraren aurka, adibidez. Mugimendu antolatua ziren, agitazioaren eta propagandaren ekintzaileak. Diskoen aspektu artistikoa, irudiari dagokionez, musika bezain garrantzitsua zen. Azalak eta barruko *insert*-ak dadaismoa gogora zekarten *collage*-ak ziren askotan. Taldearen iruditegiaren erantzulea Gee Vaucher izan zen, kolektibo anarko-punk honen kideetako bat. Berak sortutako *art-work*-ak taldearen identitatearen ikur bilakatu ziren eta gerora *do it yourself* espirituaren inguruan sortu ziren kolektibo eta artistengan eragin handia izan zuten emakume horren lanak.

DADAISTAK

Lehen Mundu Gerraren ondoren heriotza oso presente zegoen Europan. Iluntasun horri aurre egin zioten dadaistek, bizitzaren absurdoari barre eginez.

Hasieran aipatu bezala, surrealismoak dadaismoarekin duen lotura oso agerikoa da, biek ala biek bizitzaren absurdoa erabili baitzuten artea egiteko eta burgesiarengan nahasmendua sortzeko. Bi mugimenduen arteko lotura Marcel Duchamp artista frantziarra dugu. Dadaista askok bezala, ez zuen Gerra Handian parte hartu nahi izan eta Europatik alde egin zuen. Baina Duchampen arteak ez zuen dadaismoak zuen izaera politiko markatu hori. Bere esanetan, dadaistek publikoaren eta munduaren aurka egiten zuten, borroka batean sartuta zeuden eta borroka baten barruan ez dago barre egiteko aukerarik. Berak munduaren absurdoari barre egin nahi zion, desira eta sorpresa bizitza berri baten oinarri bilakatu nahi zituen. Artea bakarrik ez, dena zen txantxa bat eta horrela begiratu behar zitzaion munduari. Bere ekarpenik handiena eguneroko edozein objektu arte pieza artistiko

bihurtzea izan zen. Berarentzat edozer –gurpil bat, komun zulo bat– artea izan zitekeen. Arte mota horri *readymade* deitu zion. Garaian kontzeptu hori apurtzailea izan bazen ere, arte burgesaren izaera elitistaren aurka egiten baitzuen, gaur egun topikoa bilakatu da. Ideia horrekin bat eginik, 1961ean arte munduaren aurkako kritika bezala Piero Manzoni italiarrak *Artista baten gorotza* lana aurkeztu zuen eta 90 ale saldu. Artelana lata bat da, barruan, ustez, artistaren kaka duena. Iruzur hutsa da noski, kaka da, literalki, baina artelan bezala aurkeztuta dagoenez, Manzoni erakutsi nahi zuen jendea prest zegoela hori miresteke eta erosteke. Johnny Rotten Sex Pistols taldeko abeslariak ideia bera transmititu nahi izan zuen taldearen azken kontzertuan mikrofonotik oihukatu zuenean: “Noizbait iruzur egin dizuete-la sentitu duzue?”.



Iruzurra aipatua izan denez, ezinbestekoa da Elsa Von Freyteg-en figurari buruz hitz egitea. Emakume honen lan gutxi kontserbatu badira ere, bai dadaismoaren bai *readymade* teknika-aren aitzindarietako bat bezala aldarrikatu beharra dago. Bere lehen pausoak olerkigintzan eman zituen, fonetikoki apurtzaileak izan ziren testuak idatziz. Lan hauetako gehienak galduta egon ziren 2011n berreskuratu eta argitaratu ziren arte. Performanceak egiten zituen, jantzi deigarri eta bitxiekin, gaur egun Drag kulturak erabiltzen dituenaren antzerakoak. Elsa Baronesak –horrela izendatzen baitzuen bere burua– egindako lan askoren autoretza beste artista batzuei –gehienak gizonak– egokitu zaizkie, horien artean Duchampen *Iturria* (1917) obra famatua.

GERRAOSTEKO GAZTE BASATIAK

Gerraosteko lehen mugimendu artistiko eta abangoardistetako bat mugimendu letrista izan zen, surrealismoarekiko haustura gisa hasi zena. Beraien lehen ekintza asmo-aitorpen bat izan zen: Isidore Isou, mugimenduaren sortzaileetako bat, Dadari buruzko konferentzia batean sartu, hizlaria moztu eta berak idatzitako poesia irakurtzen hasi zen. Hala ere, aurreko mugimenduekiko lotura agerikoa zen. Jarraipen bezala ikusten zuten letrismoa, Isouk bere buruari “Jesukristok judaismoan izan zuen paper bera” aitortzen baitzion. Dadaismoak izandako hedakuntzaren ondoren, mugimendu hori birrindu nahi zuen Isouk beste hedakuntza fase bati hasiera emateko. Horrela, dadaismoak hitzak ezeztatzeko asmoz hasitako prozesuari jarraipena eman nahi zion poesia musikarekin nahastuz. Olerkigintzarekin batera, zinema ekoizpen ugari egin zuten, baita soldatapeko lanarekin bukatzea eskatzen zuten manifestu politikoak argitaratu ere. Performance ugari egin zuten, eskandalagarriena Notre Dameko (Paris) katedralean monje bezala jantzita sartu eta pulpituari “Jainkoa hil da” zioen sermoia irakurtzea izan zen.

Letrismoa, eta honen ondoren sortu zen Internazional Letrista, mugimendu isolatuak izan ziren eta eragin eskasa izan zuten partaideetatik hara-ngo. Baina gerraostean Mendebaldeak figura berri baten agerpenaren eta ez tandaren dardara bizi behar zuen; nerabeak, eta horiekin lotutako mugimendu



ITURRIA

Marcel Duchampen obratzat jo ohi den arren, zenbaiten arabera Elsa Von Freyteg edo "Elsa Baronesa" izan zen obraren benetako egilea.

men-
du kontrakulturalak katakonbeta-
tik irten eta masifikatu egin ziren.

1950eko hamarkadan gazteria zuria gelditu ezinik zebilen. *American Way of Life* delakoan sinetsi ez, eta ideal horretatik kanpo bizitzen hasi ziren gazteak agertzen joan ziren. Gazte horien errebeldiak, izaera politikoa baino, nihilista zuten. Garai haietako heroia James Dean izateak argi erakusten du espiritua zein zen. Musikak ere eragin handia izan zuen, hamarkada horretan gazteria zuriaren artean arrakastatsua izaten hasi baitzen jatorriz beltzek asmatutako rock & rolla. Baina eredu errebelde politizatuagoak, edo behintzat intelektualagoak, aurkitzen ditugu 1950eko hamarkadaren bigarren er-

dian, konkretuki *beat* mugimendu literarioaren sorreraren ondorioz. Lehen adierazpena Allen Ginsberg poetaren *Howl* (Ulua) lana dugu, 1955ean argitaratua. Lan horrek AEBen irudikapen anker eta basatia egingo du, garaian nagusi zen irudiaren aurkakoa.

William S. Burroughs izan zen *beat* mugimenduko idazleen artetik punk kulturaren arrasto handiena utzi zuena. Berez, Burroughs *beat* mugimenduaren barruan kokatzeak, formari eta edukiari baino, arrazoi kronologikoei erantzuten die. Ginsberg eta Jack Kerouac-en garaikidea izan zen eta beraiekin adiskidetasun harremanak izan zituen, baina Burroughs beste koordinada batzuetan mugitu

zen. Hizkuntza birus bat bezala ulertzen zuen, eta gaixotasun horri aurre egiteko idatzi beharra zegoen. Kontrolarekin obsesionatuta zegoen eta bere mezu politikoa horren inguruan artikulatu zuen: kontrolaren aurkako borrokan. Dadaismoarekin badu harremanik, berak praktikan jarri zuen *cut-up* teknikak dadaisten *collage*-en antza baitzuen: testu bat idatzi, zati desberdinetan moztu, nahastu eta testu berri bat osatzen zuen. Idazteaz bizi izan bazen ere, inoiz ez zuen arrakasta handirik izan punk mugimenduak aldarrikatu zuen arte. Zahartzaroan Sonic Youth, Patti Smith edo Kurt Cobain bezalako artistekin kolaboratu zuen.

Burroughsengandik asko aldentzen den pertsonaia bat, bere izaera komertzialagatik, Andy Warhol izan zen. *Readymade* teknika objektuei baino artistei aplikatu ziren. Berarentzat edozer eta edozein izan zitekeen artea edo artista. Edozein artistarekin kolaboratu zuen, beti ere horrek etekin ekonomikoa emango bazion. Bere lokalari The Factory deitu zion –fabrika, ingelesez– ikuspuntu komertzialaren beste adibide bat. Warholek marka komertzial bihurtu zuen bere burua. Faktorian jatorria zuten lan artistiko asko “Andy Warholek aurkeztzen du” zigilupean argitaratzen ziren. Arrakasta eta oparotasunean bizi zen, baina bazen

*Situazionistentzat ez
zen aski kritika egitea,
ekintza politikoak
behar ziren:
situazioak sortu*

bere jarrerari aurre egin zionik ere.

1968ko ekainaren 3an Valerie Solanas izeneko 32 urteko neska gaztea The Factoryren atean zegoen zain. Urteak zeramatzan New York hirian bizitzen. Lehenik prostituzioan aritu bazen ere, 1965etik aurrera Warholekin harremanetan zegoen eta haren bi filmetan parte hartu zuen, aurretik Warholek galdu omen zion gidoi baten ordainetan. Tarte horretan *SCUM Manifestua* idatzi zuen –*Society for Cutting Up Men* (Gizonak ezabatzeko Sozietatea) esaldiaren laburdura da SCUM–, heteropatriarkatuaren aurka ez ezik, gizonen aurka egiten zuen manifestu misandrikoa zen. Goiz hartan

ez zen bakarrik agertu The Factoryn, urte hasieran erosi zuen pistola bat lagun zuela joan zen. Paul Morrissey zinema zuzendariak handik joateko agindu bazion ere, Valeriek eraikineri sartzea lortu zuen. Warholen bulegora heldu zen Morrisseyk lagunduta. Zinemagilea komunera joan zenean eta Warhol telefono dei bat erantzuten ari zela, Solanasek hiru bider egin zion tiro Warholi.

ARTEA ETA IRAULTZA: SUTE BATEN JARRAIPENA

1960ko hamarkadatik aurrera artean eta politikan –baita 1968ko maiatzeko gertakarietan– eragina izango zuen mugimendua jaio zen letrismotik: situazionismoa. Mugimendu horren lehen pausoak 1957an eman ziren Guy Debord-ek *Internazional Situazionista* sortzeko testua argitaratu zuenean. Debordek letrismoaren ondorengoak beste mugimendu batean batu nahi zituen, artea eta iraultza politikoa uztartuko zituen. Hari bat ikusten du dadaismoa, surrealismoa, futurismoa eta letrismoa lotzen dituen. Debordentzat, lau korronteeak artearen kontzeptzio burgesarekin bukatzea lortu zuten, horri izaera berri bat emanez. Baina harago joan beharra zegoen. Ez zen aski kritika egitea, proposamenak eta ekintza politikoak beharrezkoak ziren. Berak egoerak edo situazioak sortzea planteatu zuen: bizimodu alternatiboen une bateko situazioen sorrera. Gizarte kapitalista espektakuluaren fasean sartuta zegoen eta horren hondarren gainean eraiki beharko ziren bizitzaren aspektu guztietan –urbanismoan, olerkigintzan, zinemari, eta abar– etorkizun berria argitu behar zuten situazioak. Oinarri horien gainean sortu zen 50eko hamarkadaren bukaeran *Internazional Situazionista*. Erakundearen hermetismoa gorabehera, Guy Debord, Raoul Vaneigem eta gainerakoek idatzitako testuek eragin handia izan zuten 1960ko hamarkadan sortu ziren mugimendu iraultzaileen artean. Parisko maiatzeko matxinadetan, 1968an, *Internazional Situazionista* paper garrantzitsua jokatzen zuen eta haren fama izugarri handitu zen. Hori dela-eta, sortzaileek erakunde desegitea erabaki zuten, baina beraien utzitako sua beste batzuek hartu eta 70eko hamarkadan zehar garraiatu zuten: bereziki Italian, baina baita Euskal Herrian ere hedatu zen mugimendu autonomoak; eta Londresen sortu zen punk mugimenduak. ●



VALERIE SOLANAS

SCUM Manifestuaren
egileak Andy Warhol
artista tirokatu zuen.



LIBURUA

Euri malkoak eta bizitza printzak



MINA HARTZEKO ERE JUAN LUIS ZABALA

SUSA, 2022

MADDI GALDOS ARETA

Zarakarrak azazkalez zirikatuta gaiztotu egiten ei dira ebakiak. Min guztiak ez dira zauri ordea, eta haiei so egin eta, beharbada, haztatuta, nondik datozkigun hobeki ulerenezake. Horretan ere lagun diezaguke Juan Luis Zabalak (Azkoitia, 1963) argitaratu berri duen *Mina hartzeko ere* (Susa, 2022) poema-bildumak. Liburuaren aurkezpenean poema koldar gisa izendatu zituenoi, minaz eta beldurraz gain, adorea eta grazia ere badarrie.


Apalategietan, maiz hauts geruza batek estalita, etxe orotan dira errebelatutako argazki akaso koloreak: dagoneko ez den garai baten testigu. Zabalak kutsu malenkoniatsuz dakarzkigu garaiok orriotara, bereziki, auzokide zaharrrak hiltzearekin batera galtzear diren hizketa moduak gomutatuz. Alta, hitzek,

oroimenaren pizgarri izaki, oroimina ere sor dezakete. Jostatu ostean ukondoak larrututa etxeratzen irudika genezake lerrootako ni poetikoa bere lehen minak sentitzen eta malkoak isurtzen, helduaroko ondoezen aurrekari. Izan ere, bilduma honek heltzeak dakarren aldaketa du hari nagusietako bat. Etorrizunak sortzen duen beldurraz gain, hari aurre egiteko grinak ere zeharkatzen ditu poemok, baita irakurlearentzat arnasgune gozagarri suertatzen den ironia-puntuak ere.

Hitzen hautaketa arduratsua tarteko, hizkuntza doi eta dotorea gailentzen da poemotan, eta atentzio berezia ematen dute egitura eta soinu errepikak. Joriak dira, halaber, kanpo giroa barne giroaren adierazle balitz bezala erabilitako irudiak: "Ateri dago nire be-

gietan / eta paseatzera irtengo naiz / nire penen mortu zingiratsuetara / nire kezken kale estu gaizki argiztatuetara / nire pozen etorbide laburretara / nire ilusioen zubi gero eta behereagotara". Irakurleak, gainera, beste leku batzuetara jotzera bultzatuko dutenak ere topatuko ditu bertan: tartean, etxe atariko aulkia.

Zabalak txirrindularitzari dion zaleztasuna idazketaren alegoria gisa ere badarabil, eta badirudi, ibilbide literario oparoaren ostean, egungo panorama literarioan bere burua kokatzeko saiakera ere badela lan hau. Lasterketaren buru izan baino nahiago ei du poetak inori deus erakutsi beharrik gabe helmugara iristea: "Orain, asko jota, oneanean ere, idaztean / Juan Luis Zabala lako sentitzen naiz". ●



MUSIKA

Harrapatuko zaitu



MÄIRÜ

XALBA RAMIREZ

Trantzerako musika ekarri du Lapurditik Mäirük. Musika elektronikoa eta tribalak, edo tradiziozkoak, errepikapena dute oinarri. Ez duzu kanta ezagutu behar dantzan hasteko. Bigarren bueltatik aurrera norberak badaki zer egin behar duen.

Lau urteko bilaketa egin du Mäirü taldeak izen bereko disko hau lortzeko. Perkusioan oinarritutako musika garatzen joan da: biziki basa zena harmoniaz eta melodiaz garatuz. Bederatzi musikariren artean izan da bilaketa: txalapartak, perkusioak, bateria, sintetizagailuak, flauta, gitarrak eta ahotsak.

Etzan-ekin ireki dute albuma, eta hemen ikus daiteke harmoniaren garrantzia, gitarra baitu oinarri kanta silabikoak. *Animale Heroína* pieza kanonikoa da: erritmo bizi eta dantzagarria, soinu

luze eta begiztatuak eta ahots errepikakorrak.

Oihan beltzean kantan lortu duten emaitzak pizten du jakin-mina. Buklea da oinarri, oso elektronikoa eta perkusiozko, baina ahotsaren melodia ere errepikapenean oinarritu da, kanona eta harmonia bihurria lagun. Perrine Feriolen zeharkako txirula eta Txomin Ugartemendiaren sintetizadoreen arteko elkarrizketak jantzita.

Detroiten sortu zen techno musika 80ko hamarkadan, desindustrializazio eta deslokalizazioak suntsitutako hiri batean. Etorkizun eta esperantzarik ez zuten gazte batzuk fabrika abandonatuetan hasi ziren biltzen, Juan Atkins, Derrick May eta Kevin Saunderson gazte afro-amerikarrek asmatutako musikaren bueltan. Hamabi ordutik gorako saioak



MÄIRÜ MÄIRÜ

EGILEA EDITORE, 2022

ziren, alkoholik eta drogarik gabe, bi urtez kasik egunero, munduak –edo, hobe, merkatuak– deskubritu zituen arte.

Techno rebels hitzetik omen dator technoa, afro-futurismoarekin lantzen zuten ikuspegietatik. Mäirük, nahita edo nahigabe, euskal futurismoan urrats bat eman du, estilo deitzen zaion klixetetik ihes eginez.

Izan ere, aldaketa handiak ez datoz ezinbestean egitura handietatik. Beti dago hazi bat nonbait, etorkizuna dararamana bere barnean, biharra loratu eta lehertzeko prest. Oker ez banago, bide luzeegia egin du Mäirük honaino iristeko. Baina bidean ikasitako guztia daramate soinean orain, eta udaberriko ibaien emariz garraiatu dezakete ahotsa. Badelako garaia mendi elurtuak lurmendu daitezene. ●



Nor da nor ispiluaren aurrean

✍ IÑIGO SATRUSTEGI 📺 TARTEAN TEATROA

Berandutu egin zaigu antzezlanak ikustera joan garen ikusle gehienoi. Kanpoan elkar agurtzeko astirik ez dugu izan ia. Entzun ditut jada ohikoak bihurtu diren “Zuk dituzu sarrerak, edo nik?” eta “Bizum bat egin nizun” komentarioen antzekoak, emanaldi aurreko estres modukoa Nafarroako Antzerki Eskolako ateetan. Euskaraz egin digute antzokiko langileek. Ez dakit noiz utziko diodan errudun sentitzeari beste behin harrিতa sentitzeagatik. Sartu eta jende gutxi gara. Gauza gehiegi dago Iruñean astegun buruzuria izateko. *Kulturetak* banatuta daude: Laba, Herriko taberna, MIN sariak... antzerkiaren kalterako.

Oihalaren atzekoak agerian geratu dira: zurezko egitura geometrikoak eta

gure bi pertsonaiak, Alderray eta *morroia*. Bigarrenak ez du izenik, eta hori da hain justu antzezlanaren gakoetako bat. Baina non daude? Etxean, abandonatutako eraikin batean, parkean, kalean? Morroiak nagusia mehatxatu du, ez diola nahikoa erakutsi eta alde egingo duela. Istorioak kontatzen hasi dira orduan: *Zorigaiztoko neska zoriontsua*, top zazpian; *Langile arrakastatsua* ekin eta ekin; *Irakurle mugiezina*, izozturik; edo pentsiodunen lagun *Lapur terrorista*. Pertsonaia bakoitzaren kontakizunak irakaspen modukoa dakar, bi antzezleen arteko elkarriketan. Izaera soziala eta gaurkotasuna argiak dira, baina oraindik ere ez dut ulertzen estetikoa *vintage-postapokaliptikoa*.

ALDERRAY

NOIZ: Apirilak 27

NON: Nafarroako Antzerki Eskola (Iruñea)

Literaturaren kontra egin dute, egiazko istorio eta pertsonaien alde. Autofikzioa arbuiatu du Alderrayk. “Norberaren istorioa ez da arrunta”, erantzun dio morroiak, iradokitzaile, ispiluekin jolasean.

Bekaten lapurraren ipuinean susmoa intsentsu usaina bezala zabaldu, eta *Ama kuraiarekin* baieztatu da: metaistorioa “deituko diogu”. Ez diot antzezlanak inori izorratu nahi gehiegi kontatuz. Baina aurreratuko dizuet Patxo Telleriak ohituta gauzkan umoreak ku-ku txiki batzuk baino ez dituela egiten tonu triste duen obra honetan. Sentimendu gazi-gozoak entzun ditut kanpoaldean, “barre egitera nentorren”. Baina jokoa eman du, halaber, istorio gogokoena zein izan den aukeratzeko. ●

Xabier Morras

MARGOLARIA



IRUDIAREN LILURA, TXIKITATIK

“Txikitan eskolak beldurgarriak ziren, hezkuntza basatia zen. Baina ostegunetan marrazketa klaseak geneuzkan, eta irrikaz egoten nintzen zain, niretzat hura liberazioa baitzen. Alboko kideak ikaragarri ongi marrazten zuen, eta esan zidan: “Bada nire anaiaren marrazkiak ikusiko bazenitu...”. Biharamunean anaiaren marrazki bat ekarri zidan. Tximista batek zeharkatu banindu bezala izan zen, bat-batean argi ikusi nuelako nik halako zerbait sekula ez nukeela egingo. Frustrazio ikaragarria izan zen. Baina gero, haiek sekula ez ziren horretara dedikatu, eta ni, traketsena... Ordutik, ez diot irudiak ekoizteari utzi. Nire biografia osoa dago irudiaren munduari lotua, irudiak liluratzen nau. Hori gabe ez nintzateke ni, beste norbait nintzateke”.

“Nirea ez da pintura atsegina, tragikoa da”

Laster beteko dira 50 urte Iruñeko Topaketek hiriburua hartu zutenetik. Huarte enpresari familiak finantzatuta, mundu osoko arte garaikidearen erakusgarri izan zen hiria 1972ko uda hasieran, astebetez. Baina arteaz gain, garaiko tentsio politikoen isla ere izan zen jaialdia. Protagonismo handiz bizi izan zuen ordukoa Xabier Morras pintoreak (Iruñea, 1943), Topaketetako *Egungo euskal artea* erakusketako partaide gisara. Bere azalean bizi izan zuen zentsura, baina baita zuri-beltzeko Iruñean arteari arrakala bat irekitzeko aukeraren ilusioa ere.

✍ ANDER PEREZ 📷 JOSU SANTESTEBAN

Frankismoa eta arte garaikidea, lehen bistan ez dirudite oso bateragarri.

Iruñean, artearen mundua ez genuen oso eskura, oso mugatuak ziren aukerak. Baziren erakusketa gutxi batzuk, Madalenako zubia edo Katedralaren soslaiak pintatzen zuten margolarienak eta. Pintura duina zen, eta eskaera sozial bati erantzuten zion, plazer estetikoarenari. Baina frankismoan jaiok ginenok, dagoeneko, begi bat gurean jarria genuen, eta bestea kanpoan gertatzen ari zenean. Tantaka iristen zitzaigun, ez genekien gehiegi arte garaikidearen bidez.

Testuinguru horretan, zer ekarri zuten 1972ko Topaketek?

Topaketekin bi gauzatan asmatu zen nagusiki. Bata, Iruñean egitea; hiri handiago batean urtu egingo lirake. Eta bestea, Huarte familiak antolakuntza Luis de Pablo eta Jose Luis Alexancori enkargatu izana; alegia, bi artistari, eta ez bi aditu, edo bi arte komisariori.

Astebetean, une horretan munduan egiten ziren arteen kontzentrazioa egon zen hirian. Mendebaldeko artea eta mendebaldekoa ez zena nahasi ziren. Indiako musika tradizionalako talde bat eta, aldi berean, John Cage, musika apurtzaileena egiten zuena. Abanguardiarren eta arte tradizionalen fusio hori oso ederra izan zen. Esku-pilota partidu batekin inauguratu ziren Topaketak, Labriten. Mundu osoko jendea, eta Labrit gainezka. Pentsa zenbat pilota partidu ikusi dugun. Ba ordukoa ezberdin ikusi genuen: soinua John Cage zen, pilotariaren mugimenduak ballet garaikidea. Ederra zen hura, eta gurea birdeskubritzeko balio izan zigan.

Nola bizi zuen Iruñeko jendeak?

Uste dut Iruñeko jende gehienak harritura, txundidura eta gaitzespen nahasketa batekin bizi izan zuela. Jende gazteari eragin zion gehiago, ordurako bidaiatzen hasiak ziren horiei, 68ko maiatza bizi izan zutenei, eta garaiko joeren aurrean irekiago zirenei.



Xabier Morras, urteak margotzen daraman Amaiurko batailako koadroaren aurrean. Ez du bukatzea aurreikusten: "Perfekzioa eskurazina da. Ez da sekula amaitzen".

Euskal artearentzat, hasiera batean, ez zegoen espazio propiorik aurreikusita.

Nik Nafarroako Aurrezki Kutxako kultur aretoa zuzentzen nuen. Bada pentsa, ni, espazio horren arduraduna nintzena, hilabete lehenago enteratu nintzen Topaketan antolakuntzaz. Topaketak metropolian pentsatu ziren, eta gero etorri ziren tribuarengana: "Hemen egongo da artea egiten duen norbait", esango zuten. Eta esan ziguten euskal artearen erakusketa bat izango zela.

Zure obra ez zitzaien asko gustatu.

Kristo bat jarri nuen, ahoa plastiko batekin estalia, eta halako bi jarri nizekion alde banatan [polizia bat irudikatzen duen figura seinalatuz]. Kristo nor zen? Gu, denok. Eta ondokoak, zelatzen gintuztenak [barrez]. Baina obra erretiratzeko erregutu zidaten, aurretik ere [Dionisio Blancoren] koadroarekin egin bezala. Hark uko egin zion kentzeari, eta Arrik eta [Agustin] Ibarrolak, elkartasunez, haienak estali zituzten. Baina niretzat garrantzitsua zen Topaketek aurrera egitea. Eta, beraz, obra kendu eta beste bat jarri nuen. Gero ETAk bomba bat jarri zuen kote batean, eta PCEk manifestu bat idatzi

zuen Topaketak kritikatu, Espainiaren normaltasun irudi bat emateko asmoa zutelakoan.

Zuk nola bizi zenituen kritika horiek?

Pentsa, milioidun familia bat, Medici gisara, hitz egitea ere debekatua zegoen herrialde batean beste inork antolatu ezin go lukeen halako zerbait antolatzen, zuen botereagatik. Hori zen kritikatzeko zena, eta neurri batean arrazoia zuten. Baina horren arabera, ezingo genukeen ezer egin. Eta sistemari arrakalak irekitzea zen kontua. Madrildik-eta etortzen ziren intelektual horientzat erraza zen. Baina hemengoentzat zer? Guretzat hil edo bizikoa zen Topaketek jarraipena izatea.

Baina ez zuten jarraitu. Ez zen beste ediziorik antolatu.

Hori izan da gure desgraziarik handiena. Iruñerako eta gure herriarentzat oso gauza ederra litzateke. Baina begira ze udal genuen hemen, ze diputazio. Hemen go botere eliteei, ziurrenik, ez zitzaien gehiegi gustatu.

Topaketek ez, baina zuk segitu zenuen zure ibilbide artistikoarekin. Ez da erraz laburtzen 60 urteko obra,

baina nola deskribatuko zenuke?

Nirea ez da pintura atsegina, tragikoa da. Eta askotan galdetu diot nire buruari zergatik. Holandan jaio banintz beste ukitu bat izango luke. Hemen frankismoa ikaragarria izan zen. Nik, bost urterekin, etxeok ahopeka entzuten nituen, Iruñeko Gaztelugibelean fusilatzen zituztenei buruz. Horrek denak asko eragin zidan, eta nire pinturak badu halako patu dramatiko eta tragiko bat. Jendeak zer nahi du etxean? Pintura atsegina, polita, koloretsua. Baina ni lasai aski bizi naiteke Goyaren *Fusilamenduekin*. Niri, tragikoa baino, inguratzen naudenarekiko autentikoa iruditzen zait.

Aurreko batean entzun nizun iragariaren motxila kentzeko gogoia duzula.

Baina oso zaila da. Eta margotzea terapeutikoa da. Ni oso traumatizatu egon naiz Gaztelugibeleko fusilamenduekin. Duela urte gutxi batzuk horri buruzko koadro bat egin nuen. Hor agertzen dena egia historiko zorrotza da, pasa zen. Bada ez naiz erakustera ausartzen. Ongi etorri zait margotzea, baina ez nau sendatu, benda bat jarri baizik. Zauria hor dago. Eta ez naiz erakustera ausartzen. Beraz, askatasuna dagoela... kontuz, puntu bateraino. ●

Baikortasun berria

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Ba oso inbento ona da Herri Urrats. Ipar Euskal Herriko ikastolek aurrera egiteko eta hori dena, noski, baina baita Hego Euskal Herriatik egun-pasa joaten garen askorentzat, katarsi politiko-mentala egiteko ere. Gure kainismoaren aurkako antidoto perfektua. Bat-bateko aldarte-mutazio bat gertatzen zaigu Pausuko zubian jendar-meeek jarrita duten *checkpoint* arrazista zeharkatu, Crédit Agricole, Maison de la Presse, Behobiako farmazia atzean utzi, eta biribilgunean eskuinerantz hartzen dugularik. Burua argitzen hasten da, gai izateraino desberdintzeko zer den ezinbestekoa eta zer den *atrezzo*. Bidasoaz bestaldean, dena ikusten dugu argi-ago beti. Senperera iristen garenerako, zer gara gu, nor gara gu, nahiko klaro daukagu. Berriz hegoalderatzean baino klaroago behintzat bai.

Igandeko Herri Urrats, beraz. Zenbat jende, ezta? Eta ze jende diferentea. Han zeuden Su Ta Garren kamisetadunak eta alkandora loreduneko hipsterrak; jende goxoa eta erabat horditurik elkarri plakajeak egiten ari ziren errugbilari zakarripurdiak; eta joaldunak, eta jo-ahalgabeak; eta lakuko uretan freskatzen ari ziren sei burusoil, ez, barka, miopea naiz: galtzak orkatiletaraino jaitsita uretara pixa egiten ari ziren hiru gazteren ipurdiak ziren; eta artista multidiziplinar bat “bananak!” oihuka; eta esnerik gabe geratu zen kafegilea –hemen ba-keak egiteko Kofiri deitzen diogu–; eta aparkalekua zaintzen ari zen katedraduna; eta egun osoan ARGIA irakurtzeko momentu bat ere izan ez zuen gurasoa; eta “Brebeta euskaraz” kamiseta Pantone-gamako kolore guztietan jantzita zeramaten ikasleak; eta makuluekin ti-



BAGA BIGA

rriki-tarraka zebilen arren, ibilbide osoa burutu arte etsi ez zuen tipoa –fotokazetariei dei egin nahi diet hemendik: honelako jaietan, mesedez, atera argazki bat beti pertsona horri, uste dut merezi duela hauteskunde guztietan botoa ematen agertzen diren mojek adinako errekonozimendu publikoa–.

Dibertsitate horren aurrean bainaka hastea litzateke jarrerarik euskaldunena, ugaritasuna prozesatzea ez delako gure bertuteetako bat, sobran dagoena lehenago ikusten dugulako falta dena baino, eta herri bat™ izan beharrak sarritan zapuzten digulako herri asko garelako ikusteko posibilitatea. Ia gertatu zitzaidan igandean, ibilbidean sartu bezain laster Real Madriden elastikoa zeraman haur bat ikusi nuenean. Nire barruko Telesforo Monzón agerraldi gogaikarri eta marmarti bat egiteko zorian egon zen, Espainiako selekzioari baino alergia handiagoa baitiot Floren-

tinoren taldeak ordezkatzeko duen guztiari. Baina gero batekin topo egin, beste agurtu, ondokoa ezagutu, bi urtean pilatutako ezkontasun pandemikoa urtzen joan zen, lakura jaurtitako gatz koskor bat bezala. Egotearen gauzak.

Fuerte pentsatu nahi duenarentzat, badago hor ondorioren bat ateratzeko moduko materiala. Hemen, orain, zerbait behar izatekotan, jendearekin pozik elkartzeko momentuak behar ditugula uste dut. Ez poz akritiko batekin, ezta eztabaidak, disonantziak eta diferentziak estaltzeko erabili daitekeen alaitasun inozo batekin ere. Baina bai irentsi dugun kapitulu tristea ixteko balio dezakeen jarrera baikor kritiko berri baten bitartez. Hori irakurtzen asmatzen duenak, nik uste, puntu asko ditu gure gizarte hauek berera erakartzeko. Eta euskararen aldeko aurtengo bi ekimen nagusiek ondo irakurri dutelakoan nago. ●

ZIBURUKO 3.EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

EKAINAREN 4AN
LARUNBATAREKIN
PILOTA PLAZAN



ANTOLATZAILEAK



PARTAIDEAK



BABESLEAK





BABESTU INDEPEN DENTZIA

Babesa duenak galdera berriak sor ditzake. Egin dezake desberdin.

Babesa duenak zaindu dezake elkar. Eragin dezake txikitik.

Kazetaritza independentea izan dadin, jendearen babesa beharrezkoa da.

argia.eus/eginargiakoa

komunitatea@argia.eus | (+34) 943 37 15 45